



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 27



ARRETA GOIZTIARRAREN ZERBITZUA BAZTAN-BIDASOALDEAN

Amaia Inda, Ainhoa Larralde eta Ainhoa Larrea Lesakan arreta goiztiarraren zerbitzua ematen duten teknikariak dira. Zerbitzuaren nondik norakoak eta etorkizuneko erronkak izan dituzte hizpide TTIPI-TTAPAREKIN. / 8


Baztandarrak 60.ari begira

Baztandarren Biltzarrak 60. urteurrena ospatuko du uztailaren 16an. Prestaketetan buru-belarri ari dira elkarteko kideak. / 42

SINADURAK



Fernando Etxeberriak Arkupeak elkartearen ibilbidea bildu du / 10



MAIALEN ANDRES

Aritz Juanenea erremontistarekin txapela jantzi berritan / 54



Ondoko lau urtetarako udalak eta kontzejuak osatu dituzte

KUL TUR

2023

ekainak 24 /
irailak 09

PROGRAMAZIOA



Udako kultur programazioa.
Estilo guztietako musika, dantza,
antzerkia eta askoz gehiago

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

CK cultura
navarra.es

UZTAILA

- 09 Donamaria
- 22 Zugarramurdi
- 23 Bera

ABUZTUA

- 25 Lesaka





NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Ipurdia altxatu gabe, Ullrich bezala!

«Ipurdia altxatu gabe, Ullrich bezala!». Hala erraten zidan aitak etxeko malda bizikletaz igotzen genuenean. Alemaniako Errepublikako Demokratikoan sortutako txirrindulariak 96an korritu zuen lehenbiziko aldiz Tourra, Indurainek txakalaldia izan zuen urtean.

Hau irakurtzen duzuegerako Tourraren 110. edizioa hastear izanen da Bilbotik. Pentsatzen dut umek emozioz bizituko dutela aurtengoa, akaso txirrindularitzan zaletuko dira eta iltzatuak geldituko zaizkie belaunaldi honetako Rogli, Evenepoel eta noski, Pogacar. Nik ere ederki gogoratzen ditut 90eko hamarkadako txirrindulari erreferenteak, portzierto, gizonetakoak denak.

Garaiak aldatu dira emakumezkoen txirrindularitzan ere. Gizonezkoen Tourra Eliseoetara ailegatuko den egunean hasiko baita emakumezkoena. Eta bai, Indurainek bortz Tour irabazi zituen, baina Joane Somarribak hiru! Bidegorrian, erran umeei: estutu Van Vleutenek bezala, indarberritu Arriazuren pare, izan Kopecky bezain azkarra, eta altxa besoak Somarribak bezala.

«EMAKUMEZKOEN TXIRRINDULARITZAN ERE GARAIK ALDATU DIRA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Demokraziaren izenean...

Saloura bazoaz, haurdun bazaude edo suhiltzailea bazara, agur hauteskunde-mahaiari. Izenburu hori duen pieza argitaratu du gurean gehientsuen saltzen den egunkari hiperdemokrata batek. Beraz, hondartza baino mendia nahiago, bonbero izateko 20 kilo eta 30 urte soberan (edo alderantziz zen?) eta umea izatea ezinezkoa dugunok...

NABARMENTZEKOAK



PELLO FAGOAGA
DISEINATZAILEA




ARITZ JUANENEA
ERREMONTISTA

Pello Fagoaga erratzuarra izan da aurtengo Baztandarren Biltzarreko kartelaren egilea. Tradizioa eta modernitatea uztartu nahi izan ditu diseinuan artistak.

Profesionaltara salto egin eta 10 urte beranduago lortu du bere lehen txapela Aritz Juanenea saldiastarrak. Sagardoaren txapelketa irabazi du Segurolarekin batera.

GIBELERA BEGIRA



2013-06-27 · TTIPI-TTAPA · 593 zk.

Guraso bakarreko familiak gai hartuta

Guraso bakarreko familiak gai hartuta erreportajea osatu zuen TTIPI-TTAPAK duela 10 urte. Eskualdean guraso bakarrak ziren bi herritarren testigantzak bildu zituen: Amaiurko Juanjo Arruizena eta Sunbillako Nerea Petrirenarena. Adopzioaz aritu ziren biak, egin beharreko prozesuaz eta baita haurren egokitzeaz ere. Arruizek kontatu zuenez, betidanik izan zuen gogoa aita izateko, baina, Bartzelonatik Amaiurrera bizitzera joandakoan hartu zuen erabakia. Pozik zen horrekin: «bizitza honetan egin dudak gauzarik ederrena Vilson adoptatzea izan da. Antzera mintzatu zen Petrirenarena ere: «Adopzioarena bizipen zoragarria eta ahaztezina izan da eta izaten ari da. Ez nuen pentsatzen Ibaik hain ttikia izanda, hainbertze gauza erakusten ahal zizkidanik».



erran. eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publikitate
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirenena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperako
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 45€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Mendiak bizirik

Gure ingurura ailegatu den azken mehatxua makroparke eolikoena da. Ez da mehatxu bakarra naturarako edota mendien bizitzarako. Eta oraindik etorriko direnak. Mehatxu berri honi aurre egiteko, jendea ari da mobilizatzen eta herri plataforma aunitz sortzen ari dira.

Zer jarrera hartu behar den erabakitzea ez da erreza. Zalantzak sortzen ahal dira. Gure kontraesanak agerian geldituko dira. Denetario argudioak adituko ditugu. Aldizkari honetan Juainasek adierazi zuen bezala, ziur energia berriztagarrien alde gaudela, baina, nola, non, zenbat, zertarako? Ni ere ados nago. Gogoeta egin behar dugu.

Itxuraz, agintean dauden politikoak makroproiektu horien alde daude eta, jakina, proiektu hauek bultzatzen dituzten enpresak ere bai. Negozio itzela dute, lur publikoak erabiltzen dituzte; dirulaguntza publikoetatik onura hartzen dute; obra bukatuta lanposturik ez; sortutako elektrizitatea haiek nahi duten prezioan salduko digute; eta noizbait haien irabaziaz murrizten hasten direnean, agur behur, eta berriz diru publikoak erabiliko da mendi horien itxura berreskuratzeko.

Lan ederra dugu, aunitz gara, gero eta gehiago ari gara planetako baliabideak xahutzen. Kutsadurak, suteak, idortek, tenperaturaren igoerak, gatazkak eta gure etengabeko kontsumo

«MENDIAK BIZIRIK MANTENTZEKO PREST GAUDE ZERBAIT EGITEKO?»

mo eroak ondorio larriak ekartzen dizkigute. Osasuna, bioaniztasuna, uraren eta airearen kalitatea, bakea, ekonomia, alegia, gure ongizatea eta gure etorkizuna kolokan paratzen dute.

Teoria badakigu, hor nota ona aterako genuke, praktikan huts egiten dugu.

Berriki irakurri dut gizakiok gure planetako mehatxurik haundiena, gure jarduera etengabe ari dela ingurugiroa hondatzen (*Diario de Noticias*, 2023-06-09).

Orain dela aste batzuk Nafarroan hainbat kolektibok Bidezko energia manifestua plazaratu zuten. Laburbilduz desazkundeen auzia eztabaida publikoaren erdigunean paratu nahi dute (*Berria*, 2023-05-26). Desazkundeak erran nahi du garapen ekonomikoari eta kontsumoari frenoa paratu behar diegula. Honela ezin dugula segitu, ekonomia berrantolatu behar dela eta kontsumoa murriztu.

Carlos Taibo Unibertsitate irakasleak ideia bera jorratzen du bere liburuan. Bioaniztasunaren galeraren inguruan honela dio: «giza jardueraren ondorioz, urtero 30.000 espezie desagertzen dira. Erritmo horri segituz, 2050erako gaur egun dauden hamar milioi espezieetatik erdia desagertu daiteke (Colapso).

Jose Esquinas ingeniari agronomoa eta 30 urtez FAOko funtzionarioak janari ekoizpenari buruz hauxe dio: «behar duguna baino janari aunitz gehiago ekoizten dugu, % 30 botatzen da merkatu prezioei eusteko. Aldi berean munduan 800 milioi biztanle gosez daude eta ia 2.000 milioi gainpisua dute (*Rumbo al ecocidio*).

Gure mendiak bizirik mantentzeko prest gaude zerbaitegiteko? Eta prest gaude gure kontsumo ohiturak aldatzeko?



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Aroak iraganez

Behin edo bertez irakurri edo entzuna dut bizia aroak gainditu edo iragatea dela, eta horixe egin dut nik ere, gauza tiki batzuetan. Hasteko, hemen gainean ageri den nire argazkia aldatu dut, batek baino gehiagok erran didate gainera aldatzeko ordua dela, bertez aro batekoa baitzen, urte franko pasatu dira egin zidatenetik.

Bertez aro zabalago batez mintzatuko naiz honetakoan, 33 urte inguru iraun duena. Ez nuen gogoan, Felipe Gonzalezek aurreratu omen zituelako, nik 18 urte bete eta 18 egunen buruan egin ziren niretako lehenbiziko hauteskundeak. Segur aski, botoa emateko aierrik izanen nintzen, nire abertzaletasunaren hasiera sutsu garai hartan, gure herria askatzearen aldeko botoa emateko.

Erran bezala, 33 urte beranduago, aro hori gainditu dut, eta lehenbiziko aldiz, hala nahita, ez dut botorik eman igaro berri diren hauteskudetan. Garai hartan uste nuen gure hizkuntza eta kultura gordetzeko, nahitaezkoa zela gure herria Espainiar erasotzailearengandik askatzea eta independentzia lortzea. Hamarkada batzuk joan dira, eta independentzia hitza bera ere ez dugu entzuten honezkero.

Burujabetzarik ezean ere, uste nuen «gureak» ziren politikari batzuk ez zirela berteak bezalakoak eta horiek bai egingen

«BOZKATZEAK SISTEMA FALTSU HAU LEGITIMATZEN DU...»

zituztela gauzak txukun, zintzoki, mundu hobe baten alde, eta txoritxo batek erranaz gainera, beldur nintzen bezala, ohartu nintzen ez zirela hain ezberdinak, bizizale eta uste haundi samarrekoak baizik, alegia,

mundua konpontzearen aitzakiaz euren egoa elikatzen zutenak.

Orain berriz, Espainiako Gobernuaren lehendakariak hala nahita, berari komeni zaiolako, berriz ere hauteskundeak bota dizkigu azpilara. Ondorioz gu, gixajoak bezala, berriz ere haien soinuarekin dantzan. Nire erabakia baieztatzen du horrek, alegia, ez dugula guk, herriak, agintzen, ez dugula guk erabakitzen zer nahi dugun edo komeni zaigun, jauntxo edo anderetxo politikari horiek baizik. Demokrazian boterea herriaren eskuetan omen dago, baina bistan da egiatan ez dela hori gertatzen. Edo guk erabaki al dugu noiz bozkatu eta nor diren hautagaiak? Zein errepide edo kiroldegi eraiki behar den? Zein lege bete behar ditugun, eta legea ez betetzeagatik ordaindu behar dugun isuna? Zenbat ordaindu behar dugun autoaren IATarengatik edo zenbat zerga ordaindu nahi ditugun?

Zer egingen dute agintariak azken finean? Adibide bat: Nafarroako Gobernuak 3.000 milioi euro zor ditu eta Espainiakoak 1.500.000 milioi. Denetara biztanle bakoitzeko 37.000 euro inguru tokatzen zaigu. Guretako gauza ederrak egingen omen dituzte, euren buruak luzitzeko, baina gure diruarekin eta guk ordaindu beharko dugun zorrarekin. Errana digute: «ez da miraria, zure zergak baizik».

Aukeratzen duguna da zeinek ezarriko digun lokarria lepoan eta ez nola bizi nahi dugun. Eta bozkatzeak sistema faltsu hau legitimatzen du, berandu bada ere, ohartu naiz.

11 GALDERA LABUR

ENEKO LAMOTHE SENPEREKO GAZTE KOMITEA

«Besta denboran belaunaldi guziak batzea da helburua»

Nor dugu Eneko Lamothe?

Senpertar gazte aktiboa, en-
gaiatua eta herriko bizia dina-
mizatzen saiatzen dena.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasun handiena talde
lanean aritzea da.

Noiz sartu zinen Gazte Komitean?

18 urtetan, sartzeko baimena
ukan orduko. Nire inguruan
beti ikusi ditut zaharragoak
elkartean eta horrek pusatu
ninduen sartzera. Beti gustatu
zait ekitaldiak antolatzea eta
aski naturalki egin nuen hautua.

Zertaz arduratzen zarete?

Komitearen ardura bakarra
ekain bukaeran ospatzen diren
herriko bestak antolatzea da.

Lan handia da?

Lan zama handia da, baina 40
kideen artean ongi banatua da,
lehendakariei ardura arintzeko.

Bost taldetan banatzen gara:
Diruzain poloa, Animazio poloa,
Komunikazio poloa, Elikatze
poloa eta Logistika poloa. Aben-
duan hasi genituen lehen au-
rreikuspenak eta bakoitzaren
lekua adostu genuen.

Herritar guziak kontuan hartzen dituzue egitaraua prestatzean?

Belaunaldi guziak hunkitzen
saiatzen gara. Ostiralez eskolen
arteko lasterketa antolatzen
dugu, larunbatean Pilota elkar-
teko txapelketa haur eta gaz-
teentzat eta igandez, kantaldia
adin handiagoa dutenentzat.
Besta denboran belaunaldi gu-
ziak batzea da helburua, gazteek
zaharragoekin denbora ona
pasa dezaten.

Bestazalea zara?

Bai, 25 urteko gazte guztiak
bezala. Senpereko bestetan anitz



gustatzen zait astelehena; eki-
taldi pisutsuenak pasatuta la-
saiago sentitzen gara, eta be-
launaldiak nahastuta senpertar
anitz biltzen dira ostatueta
kantu batzuk botatzeko. Giroa
anitz gustatzen zait.

Zerk egiten ditu bestak berezi?

Guretako desberdinak dira gure
sorterriko bestak ospatzen di-
tugulako. Urtean zehar ikusten
ez ditugun ezagutzak berriz
ikusteko eta trago baten ingu-
ruan berriak hartzeko aukera
ematen dute.

Zer hobetu daiteke?

Domaia atzematen dut komiteak
bestak bakarrik antolatzea.
Senpereko gaztetxeak ez du
gehiago lokalik, hatsa galtzen
ari da eta ez du nehork segur-
tutzen ekitaldi kulturalen an-
tolaketa urte osoan.

Zure asmoak epe motzera?

Bestak ongi iragaita eta sen-
pertarrek plazer hartzea.

Eta epe luzera?

Komitea beste dimentsio batean
sartzea eta ekitaldiak antolatzea
urte osoan.



1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Eskerrik asko

RAKEL MIGELTORENA

LESAKAKO TXIRULA LOREDEMDA

Kaixo guztioi!

Jakinen duzuen bezala, aurtengoa izanen da Txirula lore dendaren nagusi izanen naizen azken urtea eta abuztuan esku onetan utziko dut denda, Andrearen eskuetan. Denbora honetan guztian elkarrekin bidaia luzea elkarbanatu dugu, gure bidean lagun izan zaituztegu guzti-guztiak eta gure egunerokoaren zati garrantzitsua izan zarete. Hagitz eskertua nago horregatik guztiagatik eta denei eskerrak eman nahi dizkizuet, bihotz-bihotzez. Mila esker.

Gazteok EH Bildu!

JOSU TXOPERENA, EKHIÑE ZAPIAIN, JOANES ILLARREGI, AINTZANE ARIZTEGI, EKI ETXANDI ETA PATXI MARTIN

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEKO KIDEAK

Espainiako Estatuan udal eta foru hauteskundeetan eskuinak eta ultraeskuinak izandako gorakada ikusita, gobernu espainiarrak uztailearen 23ra aitzineratu ditu Senatuko eta Kongresuko hauteskundeak.

Maiatzaren 28koen gisara, krisi garai batean ailegatuko gara uztaileko bozketara, krisi anizkoitza moduan ulertu behar duguna.

Alde batetik, sistema kapitalista zisheteropatriarkalak eta bere mesedetan aritzen diren estatu zapaltzaileak erreproduzitzen duten antolaketa sozial, ekonomiko eta politiko sostengaezinak ekarri gaituzte puntu honetara. Hori garbi ikusten da

bizitzako hainbat esparrutan, izan krisi klimatikoaren eraginean, izan zaintzaren arloan dagoen gabezia edo izan lan eremuko geroz eta arrakala sozial handiagoan.

Bertzalde, gazteoi bereziki eragiten digun testuinguru batean gaude. Lehen aipatutako gaiek eragin handia edo handiagoa dute gazteengan, lan eremuko prekarizazioan, adibidez.

Azpimarratzekoak dira Espainiako Estatuan maiatzean izandako hauteskundeen emaitzak ere. Garbi ikusi da eskuina eta faxismoa inoiz baino biziago daudela, eta testuinguru honetan ere heldu gara hauteskundeetara.

Hala ere, eskualdeko gazteok argi dugu. Euskal Herriak, egoera iraultzeko, burujabetza behar du, bai baldintza sozial eta ekonomikoak aldatzeko, baita faxismoari ateak ixteko ere.

Horretarako, boto independentistaren eta antifaxistaren aldeko aldarria egiten dugu, hau da, EH Bilduren aldeko botoarena.

Baina horrez gain, eguneroko lanean eta borrokan segitzea dagokigu gazteria eta herria biziarekin eta alternatibak eraikiz.

Uztailearen 23an, gazteok EH BILDU!

BOTA BERTSOA



ELORRI GOÑI ELORTZA

BERAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN B MAILAN 1. SARIA

Natura

Doinua: Ikusi nuenean

*Begira ezazue
zuen ingurura
ez al duzue ikusten
aunitz kutsadura?*

*Guk honetan badugu
zerbaiten ardura
eta uste dut dela
zaintzera natura.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

***Zerbeza lata bat edan'** edo 'Lata bat zerbeza edan?'

Zerbeza lata bat erraten badugu, ontziaz ari gara. Edo esne kutxa bat erraten badugu, ontziaz ari gara; ontzi mota adierazten du.

-Zerbeza lata bat bota dut lurrera.

Lata bat zerbeza edan dut erraten badugu, berriz, edukieraz ari gara. Edo kutxa bat esne erraten badugu, gauza bera.

Zenbat zerbeza edan dut? Zenbat esne?

Hona hemen adibide gehiago:

-*Kopa bat xanpain atera dit, baina hartatik ura edateko.

>Xanpain kopa bat atera dit, baina hartatik ura edateko.

-*Xanpain kopa bat edan zuen ospatzeko.

>Kopa bat xanpain edan zuen ospatzeko.

Hizki zopa

Eskualdeko hamar emakume bertsoariaren abizenak ageri dira hizki zopa honetan:

L	A	G	O	M	A	T	U	N	K	O	S	K	O
L	B	E	H	L	U	P	I	F	U	N	I	T	S
O	R	R	M	M	P	A	F	L	N	E	Z	E	A
E	S	T	A	Z	I	S	Z	E	T	I	T	L	U
L	I	U	D	P	A	I	X	I	X	T	R	L	E
I	M	I	A	R	O	Z	E	N	A	E	M	E	A
Z	M	Z	R	X	A	S	N	R	L	T	I	T	A
A	O	P	I	B	E	O	A	E	O	A	T	X	I
G	U	S	A	N	F	E	R	N	A	N	D	E	Z
O	X	A	G	M	O	U	I	M	Z	U	E	A	P
I	R	D	A	E	M	T	N	A	N	Z	J	I	U
E	P	F	J	R	E	P	Z	I	I	F	U	T	R
N	D	T	X	O	P	E	R	E	N	A	E	X	U
A	K	G	K	T	I	X	E	T	E	N	A	U	A

Zein da zuzena

***'Hamar ordu iraun ditu bizirik'** edo **'Hamar ordu iraun du bizirik?'**

Euskaltzaindiak dioen bezala *Hamar ordu iraun ditu bizirik jostera ez da zuzena; horrelakoetan *hamar ordu iraun du bizirik* da komunztadura zuzena, singularrean. Osagaia ez da NOR/ZER, baizik ZENBAT.

*Zortzi egun(ez) iraun zizkion oinazeak

>Zortzi egun(ez) iraun zion oinazeak.

*Bi ordu iraun ditu bilerak.


>Bi ordu iraun du bilerak.


*Urteak eta urteak iraun ditu.

>Urteak eta urteak iraun du.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

* Oharra: 832. aldizkariko errana hauxe zen:

Letraduak badaki, probatuak hobeki.

ETA ZUK ZER DIOZU?

«Inklusioaz ari gara, baina zerbitzu hauekiko beldurra bada oraindik»

AMAIA INDA, AINHOA LARRALDE ETA AINHOA LARREA ARRETA GOIZTIARREKO TEKNIKARIAK

Arreta goiztiarraren nazioarteko eguna ospatu da ekainaren 16an eta data hori hizpide hartuta, Baztan-Bidasoalderako zerbitzu hori eskaintzen duen Lesakako bulegora hurbildu gara

AITOR AROTZENA LESAKA

«Gure helburu nagusia arreta goiztiarreko zerbitzua ezagutzera eman eta gizartea sentsibilizatzea denez, bertzeak bertze, ekainaren 16ko nazioarteko egun horretan sare sozialen bidez publikazio tiki bat prestatu dugu. Aldi berean, elkarrizketa hau ere bada egun hau aldarrikatu eta ezagutzera emateko modu bat». Honela aipatu digute ANFASen bidez Baztan-Bidasoalderako arreta goiztiarreko zerbitzua eskaintzen duten teknikariek. Eskualdeko hiru emakume eta Villabonako fisioterapeuta batek ematen dute zerbitzua Lesakako Udalaren erabilera anitzeko aretoan: **Amaia Inda Jorajuria** (Donamaria, 27 urte), Lehen Hezkuntzan Graduko ikasketak eginga, behar bereziko eta entzumena eta mintzairako espezialitateekin; **Ainhoa Larralde Korta** (Lesaka, 22 urte), Psikologian graduatuta, osasunaren psikologiako aipamenarekin; **Ainhoa Larrea Lekuberria** (Zubietta, 29 urte), Terapia Okupazioaneko gradua eta Lehen Hezkuntzako Graduko ikasketekin. Arreta Goiztiarreko masterra dauka; eta **Uxue Mendizabal Etxeberria** (Villabona, 26 urte), Fisioterapiari graduatuta eta Fisioterapiari pediatrikoko masterra duena.

Aipatu digutenez, «lantalde berria gara eskualdean izan diren aldaketengatik. Kasu honetan Ainhoa Larrea da

denbora gehien daraman profesionala, 2022ko otsailean hasi zen eta ondotik, 2022-2023ko ikasturtean Amaia Inda, Ainhoa Larralde eta Uxue Mendizabal sartu dira, aitzinetik zeuden profesionalen lanari segida emanez».

Zer da arreta goiztiarra? Nola definitzen da? ANFASen barrenean lan egiten duzue... Zer da ANFAS?

Arreta goiztiarra 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku hartzeen multzoa da. Zerbitzuaren helburua aldi baterako edo iraunkorrak izan daitezkeen beharrei ahalik eta lasterren erantzutea da. Osasuna, hezkuntza eta arlo soziala aintzat hartzen dira garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten kasuetan. Haur baten bizitzako lehen urteak funtsezkoak dira hainbat gaitasun eskuratzeko. Izan ere, aldi honetan garunaren plastizitatea eta nerbio sistemaren garapena gertatzen baitira. Nahiz eta arreta goiztiarreko zerbitzuak 0-6 adin tartean esku hartu, garrantzitsua da bi etapetan bereizten dela azaltzea. 0-3 urteko adin tartea Nafarroako Gobernuak Gizarte Zerbitzuen Karterak bermatzen du. Hori dela eta, etapa honetako zerbitzua doakoa da. 3-6 urteko adin tartean, aldiz, dagoeneko umeak eskolatuarik daudenez, ikastetxeetan eskaintzen diren laguntzen zerbitzu osagarria da.

Kasu honetan, ANFAS da zerbitzua eskaintzen duen entitatea, horregatik zerbitzua ordaintzen da. Bi kasuetan umearen eta honen inguruan dauden profesionalen arteko koordinazioa ezinbertzekoa da. Koordinaketa hau sarean egiten da: osasun etxea, gizarte zerbitzuak, hezkuntza edota kasuak eskatzen duen bertze profesionalekin. ANFAS adimen urritasuna edo eta garapen nahasmena duten pertsonen eta bere familien aldeko Nafarroako elkarte da. 1961. urtean desgaitasun intelektuala zuten pertsonen familia eta lagun talde bat sortu zen gizartean zeuden mitoak uxatu eta hauen esku-bideak aldarrikatzeko asmoz. Bere garaian Iruñean sortu bazen ere, Nafarroa guztian zehar hedatuta dagoen elkarte da.

Baztan-Bidasoalde osorako zerbitzua eskaintzen duzue? Noiztik?

«LEHEN URTEAK FUNTSEZKOAK DIRA GAITASUNAK ESKURATZEKO»

«FAMILIA ARDATZ DUEN EREDUAN OINARRITUTA LAN EGITEN DUGU»

Baztan-Bidasoa eskualdean eskaintzen den zerbitzuak bi egoitza nagusi ditu; Lesakan eta Elizondon. Hauetaz gain, Malerrekako kasuak Doneztebeko Osasun Etxean artatzen dira. Duela 20 urte inguru jarri zen zerbitzua martxan gure eskualdean eta geroztik zerbitzuak martxan segitzen du umearen eta honen familiaren bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

Gaur egun zuek laurak aritzen zarete lan honetan edo baduzue langile-laguntzaile gehiago? Lan guztia bulegoan egiten duzue edo kanpoan edo etxez etxe ere ibiltzen zarete?

Gaur egun, esku hartze unitatearen barnean hiru perfil bereizten dira: logopedia, fisioterapia eta estimulazio global edo psikomotritzitatea. Lau teknikarik eramanen dugu aitzinera esku hartze zuzena, baina lan taldea profesional gehiagok osatzen dugu. Alde batetik, 0-3 urteko adin tartean, umea zerbitzuan sartu aitzinetik, balorazioa egiten duen psikologoa, Andrea Beriain ANFASeko Arreta Goiztiarreko arduraduna da eta Maite Aranbillet eskualdeko arduraduna. Normalean saioak egoitzetan egiten dira baina egoera osotasunean aztertuz eta beharren arabera kasu batzuetan etxeetan, haur eskolan edo ikastetxeetan esku hartzen da.

Zenbat erabiltzaile dituzue gaur egun? Zer gisako ezintasun/zailtasun/eritasun/izaten dituzte eta nola artatzen dituzue? Haurrendako bakarka ez ezik familierendako programak ere izaten dituzue?

2022. urtean Nafarroa osoan 1.041 haur hartatu ziren arreta goiztiarrean, horietatik 74 Baztan-Bidasoaldean. Arreta Goiztiarraren ardatz nagusietako bat prebentzioa denez, azpimarratzekoa da zerbitzuan sartzeko ez dela beharrezkoa diagnostiko edo ezgaitasun bat izatea. Izan daiteke umearen adina eta garapen ebolutiboa momenturen batean bat

ez egitea eta, ondorioz, zerbitzura deribatuko dute, estimulazio gehigarri bat jasotzeko. Badira umeak protokoloz ere zuzenean zerbitzura deribatzen direnak; ume goiztiarrek, esate baterako. Gure zerbitzura iristeko hainbat modu izan daitezke, familiak eskatuta, osasun etxean edo haur eskolan beharrak ikusita, edo umearen inguruko edozein pertsonak eskatuta. Hainbat ibilbide daude: modu prebentiboan sartzen diren umeen kasuan momentuko beharrak asetzen direnean zerbitzua amaitzen da. Aldiz, beharrak izaten segitzen duten kasuetan lanketarekin segitzen dugu. Esku hartzen ditugun kasuak anitzak dira: nahasmendu kognitiboak, mugimenduaren arlokoak, sentsorialak, emozionalak, jokabidearenak, hizkuntzari dagozkionak, genetikoak... Familia ardatz duen ereduan oinarrituta lan egiten dugu, horrek erran nahi du familia prozesu guztian zehar agente aktiboa dela eta hauen zalantza eta premiei espazio bat eskaintzen saiatzen garela. Honetaz gain, gurasoei bideratutako espazio bat eskaintzen da ANFASen. Bertan, egunerokotasunean suertatzen diren zalantza, berrikuntza eta kezka partekatzen dira. Maite Aranbilletek bideratzen du taldea eta hilabetean behin elkartzen saiatzen dira.

Zer suposatzen du arreta goiztiarreko arreta zerbitzu hau eskualdean izateak? Bertzela, edo hau izan baino lehen, Iruñera mugitu behar izaten zuen jendeak? Zerbitzua bertan eskaini baino lehen, familiek Iruñera desplazatu behar izaten zuten, horrek suposatzen duen denborarekin, esfortzuarekin eta arriskuarekin. Zerbitzua eskualdean izateak, bertako familien bizi kalitatea hobetu eta lanketa hurbila eta egunerokotasunean oinarritutakoa izatea ahalbidetzen du.

Gaur egun eskaintzen duzun zerbitzuaz aparte, etorkizunera begira bertze zerbait gehiago



Amaia Inda, Ainhoa Larralde eta Ainhoa Larrea, Lesakako arreta goiztiarreko aretoan. Uxue Mendizabal falta da.

eskaintzeko asmorik edo borondaterik baduzue? Posible da? Bertze zerbaiten premia sumatzen duzue? Erabiltzaileek bertzelako premiak badituzte?

Nahiz eta gure lana 0-6 urte bitartean zentratu, ezin dugu etorkizuneko begirada galdu, gaur egungo ume hauek etorkizuneko gazte eta heldu bihurtuko direlako, eta eskualdeko baliabideak hauen egoera eta beharretara egokitu beharko direlako. Premiei dagokionez behar gehien dituztenen ka-

suan badaude hainbat alderdi hobetu eta kontutan hartzekoak: aisialdia, familien dako arnaguneak, formakuntza, laguntza emozionala, etxebizitzak... Lantalde berria izanik gogotsu gaude esparru honetan lanean segitzeko. Hagitz presente dugu gure lanaren funtsa kalitatezko zerbitzu bat ematen segitzea dela eta horretarako ikasten eta jakintzak ahalik eta gaurkotuen izaten segitzen saiatuko gara.

Gizartea sentsibilizatzea izanen da zuen bertze erronka bat. Gauri batean baztertuak izaten ziren arazo hauek eta orain gero eta gehiago bistaratzeko eta gizarteratzen dira...

Uste dugu aurrerapenak egon direla baina ezin da ukatu oraindik gizartean inklusioa aunitz entzuten den arren, errealitatean ez dela praktika guztiz eramaten. Sarritan zerbitzu mota hauekiko konnotazio negatiboa, estigma edo beldurra dago oraindik.



Fernando Etxeberriak idatzi du Arkupeak elkartearen historia, eta «oso egiteko gustukoa» izan da beretzat. TTPI-TTAPA

Herriak Arkupeaken lana ezagutzeko

Arkupeak elkartearen historia hiru liburuxkatan bildu du Fernando Etxeberria elkarteako bazkideak. Urte luze egindako lana ezagutaraztea izan da bere helburua. «Elkarreak eskualdeko erretiratuei emandako aukerak» dira Etxeberriaren hitzetan bere lorpenik handienak

A. LARRETXE LESAKA
Arkupeak elkartearen historia aski ongi ezagutzen du Ezkurrako Fernando Etxeberriak. Bazkidea da aspaldidanik eta urte aunitzez elkarte zuzendaritza batzordeko kidea ere izana da. Maite du elkatea, eta maitasun hori gainerakoei ere erakusteko asmoz, Arkupeak elkartearen 36 urteko historia idatziz bildu du.

Liburu bakarrean baino, hiru liburuxkatan publikatu dute, liburuxketako bakoitza bazkideek sei hilabetetik behin jasotzen duten buletinean integratuz. Elkarrearen historia bi arotan banatu du Etxeberriak: sorreratik 2011n Felipe Ganboak dimisioa eman zuen artekoa eta Pedro Bañaresek 2012an kargua hartu zuenetik gaur egun

artekoa. Horrekin batera, kapitulu berezi batean bildu ditu elkartearen barrenean sortutako mendi taldeak egindako ibilbidea. Dagoeneko publikatu dituzte hirurak eta bazkide denen etxeetan dautu irakurtzeko prest.

Lana «ezagutaraztea»
Etxeberriarena izan da elkartearen historia idazteko ideia, izan ere, elkarteak 36 urtez egindako lan dena ezkutuan gelditu dela iruditzen zaio. «Nire nahia jendeak gure historia ezagutzea da», azal-

**ETXEBERRIARENA
IZAN ZEN HISTORIA
LIBURUAN
IDAZTEKO IDEIA**

du du. Horregatik, hori ezagutaraztea izan da helburua. Izan ere, bere irudikoz eskualdeko herritarrek ez dute ezagutzen Arkupeak elkarteak egindako lan sozial handia.

Hiru liburuxketan xehetasun handiz bildu ditu elkartearen historian izandako irteerak, ekitaldiak, omenaldiak lorpenak eta baita lortu gabekoak ere. Egitekoa erraza egin zaiola dio, elkartearen artxibategian txukun gordeta baitzeuden dokumentu guztiak «liburutegi batean bezala».

**ELKARTEAK
«ETORKIZUN
OPAROA» DUELA
USTE DU IDAZLEAK**

Ezkurrarraren lanaren aitzinetik, elkarteako lehendakariak eskatuta, Loli Ostolazak bildua zuen artikulu batean 36 urtetan egindako lana. Etxeberriarentzat, ordea, xehetasunak eta anekdotak falta ziren bertan, eta horregatik lan luzeago bat egiteko proposamena luzatu zion elkarteako lehendakariari. Hasieran, historialari gazte bati eman zioten egitekoa, baina azkenerako, ez zuen egitekoa bukatu, eta Etxeberria bera izan da lan hori egiteaz arduratu dena. «Kontzientzia kargu pixka bat nuen ideia nirea izan zelako», azaldu du.

Historia xehetasun osoz
Aitzinetik ere ibilia zen artxibo lanetan, Ezkurrari buruzko liburua kaleratu baitzuen duela bi urte eskas, eta beraz, bazuen esperientziarik horrelakoetan. Ezkurrarrak kontatu duenez, bi urteko lana izan da hiru liburuxkak idaztearena, «baina oso gustukoa».

Lehen liburuxkan mendi taldearen historia bildu du kronologikoki, egindako irteerak, irteeretako argazkiak... Gainerako bietan, aldiz, kronologikoki elkarteak sortu zenetik gaur arte egindako lan dena bildu du, eta egindako besten kronikak ere bildu ditu, hau ere argazkiekin osatuta.

Liburuxka guztiak banatuak, pozik dago jaso duen harrearekin. «Batzordekide denek irakurri dute eta alde horretatik oso pozik nago». Argazkiak izateak, gainera, irakurketa errazten duela uste du: «Egia da jendeak lehenengo argazkiak begiratzen dituela. Batez ere jubilatuek ez daukate ohiturarik euskaraz irakurtzeko eta kostatzen zaie, baina kapitulu osoak irakurri gabe zati batzuk irakurtzen dituzte».

Elkarreak egindako bidea barren barrenetik ezagutzen du Etxeberriak eta ekarpen

handiena zein den galdetuta argi dauka erantzuna: «bazkideak etxetik ateratzea eta aisialdirako aukerak ematea». Eta gehiago: «Jendeari eskaini zaion laguntza ekonomikoa, soziala eta batez ere alde ludikoa nabarmenduko nituzke». Etxeberriaren ustetan, bertzela egingo ez lituzketen ekintzak egiteko aukera eman die erretiratu aunitzi Arkupeak: «Elkarte hau egongo ez balitz milaka lagun ez lirake etxetik aterako, ez lukete bidaiarik eginen, ez eta beste harremanik sortuko ere... Pentsa Ameriketan izan dira bazkideak hiruzpatalu aldiz eta atzetik ez baduzu horrelako talde baten babesik ezin duzu joan». Hala ere, bertze ekitaldi batean paratu du fokua: «Interesgarriena, eta politena omenaldi eguna da, 500 bazkide baino gehiago elkartzeko gara eta hori da nire ustez urteko ekitaldi politena».

Horrez gain, eskualdeko kiroldegiekin egindako hitzarmena ere balioetsi du, izan ere, horri esker bazkideek deskontuak eta ikastaroak izaten dituzte kirola egiteko, eta horrekin batera mendi taldeko irteerak egindako ibilbidea goraiatu du: «Hasieran 15 lagun hasi ginen eta orain normalean 60 lagun inguru elkartzeko dira hilabetero-hilabetero irteerak egiteko. Nik neronek antolatu izan ditut mendiko irteerak eta ikusten duzu jendea oso pozik dabilela».

Pentsionisten aldeko borroka

Alde ludikoaz harago, eskualdeko erretiratuen eskubideen alde egindako borroka ere aipatzeko modukoa da Etxeberriarentzat. Frantziako jubilazioak kudeatzen egindakoa azaldu du: «eskualdeko jende asko ibili zen lanean Frantzian, baina, ez zeukaten hori horrela zela demostratzen zuen paperik, eta Hendaiaiko kudeatzaile batekin batera ibili ginen lanean

beraiarentzat pentsio duina lortzeko».

Ez da hori elkarteak bere historian pentsiodunen alde egindako borroka bakarra. Bertzeak bertze Gizarte Segurantzaren bulegoa Doneztebera ekartzeko egindako lana, larrialdi egoeran zeudenentzako etxebizitzak sortu izana... Egindako lanen artean, bereziki nabarmendu du liburuan Donezteben adinekoen egoitza bat egiteko egin zuten ahalegina: «ez zuten helburua lortu, eta nire ustez engainatuak sentitu ziren». Horiek eta gehiago bildu ditu liburuan, «izan daiteke anekdotaren bat edo ahaztea, baina, ia gauza denak sartu ditut».

Etorkizun «oparoa»

Elkartea «inoiz baino hobeto» ikusten du Etxeberriak. «2.970 bazkide baino gehiago gara». Azaldu duenez, eskualdean urtero-urtero 50-60 erretiratu hiltzen dira, eta horietatik gehienak elkarteko bazkideak dira. Hala ere, urtetik urtera bazkide kopuruak gora egiten segitzen du, bajak baino gehiago direlako izena ematen duten bazkide berriak «100 lagun inguru». «Nik uste dut hemendik pare bat urtera 3.000 izatera iritsiko garela», erran du.

Kopuruaz harago, bazkideen parte hartze haundian ikusten du osasuntsu Arkupeak: «Azken urteetan aunitz dira irteeretan eta, batez ere, bidaietan parte hartzen duten bazkideak eta ez hori bakarrik, orain bertan aldutuko da zuzendaritza batzordea eta bi edo hiru pertsona daude bertara sartzeko asmoarekin. Bizi-bizi eta indartsu dago».

Arkupeak elkarteak eskualdeari aunitz eman diola uste du Etxeberriak, baina eskualdeari aunitz emateaz gain, berari pertsonalki ere aunitz eman diola dio: «Aberastasun handia eman dit. Elkartearen bidez jende asko ezagutu dut».



Arkupeak elkartearen sortzaileak. UTZITAKOIA



Elkarteko bazkideak 1994an egindako Soinketa Egunean. UTZITAKOIA



Elkarteko hainbat bazkide 2012an Pirinioetara egindako irteeran. UTZITAKOIA



Bidaia aunitz antolatzen ditu elkarteak, Irudian, Avilara egindakoa. UTZITAKOIA



Berako udalbatza osatuko duten zinegotziak, erdian alkatea dela. UTZITAKOIA


Aitor Elexpuru izanen da alkate bertze lau urtez

2019an aukeratu zuten lehenengoz alkate Elexpuru, eta bigarren agintaldia izanen du

A. LARRETxea

Bertze lau urtez EH Bilduko Aitor Elexpuru Egaña izanen da herriko alkate. Ekainaren 17an hartu zuen kargua, herritarren aitzinean. EH Bilduk bederatzi zinegotzi izanen ditu agintaldi honetan, aitzinekoan baino bi gehiago, eta Herrirakok berriz bi. Alkatea aukeratzeko bozketan, EH Bilduko zinegotzi hautatu berriek Elexpururi eman zioten botoa, eta Herrirako taldekoek, aldiz, Jose Antonio Oiartzabali.

Aginte makila hartu berrian, herritarrei eskerrak eman zizkien Elexpuruk emandako



Elexpuru aginte makilarekin.

babesagatik eta bertze lau urterako lanerako konpromisoa berretsi zuen.

EH Bilduko zinegotziek bi bertso kantatu zizkieten Elexpururi.

Oinarrizko lehen sorospen ikastaroa hilaren 30ean

Barraskilo Gazte Taldeak antolatuta, hilaren 30ean oinarrizko lehen sorospen ikastaroa egingen dute Kultur Etxean. Bitxandatan egingen dute, 16:30ean eta 18:30ean. Ikastaroan lehen sorospenez gain, desfibriladoreak erabiltzen ere ikasiko dute.

Zinegoak jaialdiko dokumentalen emanaldia

Zinegoak jaialdiko film laburren emanaldia izanen da Beralandetan, ekainaren 30ean, 20:00etan. Bilboko Gaylesbians Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdia da Zinegoak eta bertako film laburren aukeraketa emanen dute.



Talde denek dantza jaialdia egin zuten Merkatu Plazan. UTZITAKOIA

200 dantzari baino gehiago elkartu dira Dantzari Ttikin

A. LARRETxea


Herriko karririk dantzari bete ziren ekainaren 10ean. Urtero bezala, Gure Txokoa Elkarteak Dantzari Ttiki antolatu zuen, eta Gipuzkoatik etorritako hiru dantza taldeko dantzariak eta Berakoak aritu ziren karririk dantza zabaltzen.

Goizean karrikabuelta egin zuten auzorik auzo, eta haiketako egin ondotik, denak elkarrekin Merkatu Plazara joan ziren. Bertan, dantza emanaldia egin zuten lau taldeek, eta eguna bukatzeko Jeiki Hadi taldearekin mutxikoak eta bertzelako dantzak dantzatu zituzten.

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOIA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legla, 23 - BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berrnizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ANTZUZELAI S.L.
BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com
HARGINTZA FATXADAK TXIMINIAK ZOLAK TAILLA ARTISTIKOAK OBRAK



TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Ireki dituzte herriko eta Ibardingo turismo bulegoak

Udan bisita gidatuak egiteko aukera izanen da Bera eta ondoko inguruak azalpen bidez ezagutzeko

A. LARRETxea

Ekainaren 20an ireki zituzten herriko eta Ibardingo turismo bulegoa. Aurtengoa, aldaketen urtea izanen da: herrian dagoen turismo bulegoari argitasuna eta ikusgarritasuna ematea xede, barrenetik bulegoa bera margotu eta txukundu dute. Kanpoaldean, seinalizazio berria jartzeari ere ekin diote.

Zerbitzua indartzeko asmoz eskuorri batzuk prestatu dituzte; herriko mapa oinarri hartuta, azalpenak borts hizkuntzatan eskainiko dira he-

rrira hurbiltzen diren bisitariak bertako xehetasunak jakin ditzaten. Helburua bertakoei eta turistei gure eskualdea erakustea da: Bortziriak, Baztan-Bidasoa, Xareta...

Turismo bulegoak bisita gidatuen aukera ere eskainiko du, Bera eta inguruak azalpen bidez ezagutzeko. Udalak bere web orrian atal berri bat irekiko du, eta bertako zerbitzuak agertuko dira. Horrekin, bertako jendea zein kanpotik datorren jendea herriko zerbitzuetan kontsumitzera bultzatzea da asmoa.

Giro ederra izan dute Altzateko bestetan

Ekainaren 16an hasi eta 18ra bitarte ospatu zituzten Altzateko bestak. Erraldioen kalejira, Gure Txokoaren BTT proba, auzo bazkaria, Bera Kantari, mutxikoak, haurrentzako kale ikuskizuna, bertso poteoa... Denetarik izan zuten eta herritarrak gustura ibili ziren.



Bera Kantarikoak. TTPI-TTAPA



GOLDATZ TALDE FEMINISTA

Hilketa matxista salatzeako karrikara

Denbora guttitan hirugarren aldiz, indarkeria matxista salatzeako karrikara atera ziren ekainaren 18an herriko Goldatz Talde Feministak deituta. Ekainaren 16an Bilbon 28 urteko gazte batek 89 urteko bere izeba zaharra hil zuen labankadaz, eta hori salatu zuten.



UTZITAKOA

Kaxernako skate pista moldatu dute

Kaxernako skate pista konpontzeko lanak egiten ari da udala. Irisgarritasuna hobetu, lur mugimendu eta sasi-garbitze lanak, aparkaleku bat egokitu, eta aisialdirako eremua izanen diren espazioak sortu dituzte. Erabilera arauen seinalizazioa ere jarri dute eta segurtasunerako burdinezko hesiak paratuko dituzte.

IGONE

Disfrutatu liburu onak irakurriz, aukera zabala duzu.

Liburu eskaera abuztuaren 10a baino lehen egiten dutenak eskolako materiala erosteko **BONU** baten zozketan sartuko dira.

*Zozketa abuztuaren 16an izango da.

Tonerrak eta tintak enkarguz

LIBURU-DENDA, PAPER-DENDA, MARGO-DENDA, JOSTAILU-DENDA

Kanttonberri, 4 BERA Telefonoa eta 948 630 626 papeleriaigone@gmail.com

Astrolaboretik ortzira: 07:15etik aitzinera

LABE ZAR

Larunbata eta igandaz: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

Manterola

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA - GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602



Udal korporazioa osatuko dutenak. EH Bilduko Pello Astiz falta da. A. AROTZENA

Ladis Satrustegik segituko du alkate datozen lau urteetan

Kargua hartzeko ekitaldian, Geroa Bairen udal taldean, Imanol Goienetxek hartu du Maribi Gortariren lekua

AITOR AROTZENA

Ladis Satrustegik (EH Bildu) segituko du udalaren alkate karguan datozen lau urteetan ere. Azken agintaldiko gehien-goia handitu egin du gainera eta hamaika zinegotzietatik zazpi izanen ditu EH Bilduk. Horietatik sei izan ziren ekainaren 17ko kargua hartzeko ekitaldian, Pello Astiz bidaiari baitzen. Halere, aski izan ziren Ladis Satrustegi berriz ere alkate izendatzeko. Eneko Fernandez zinegotzi berriak bertsoa ere kantatu zuen ekitaldian eta pleno aretoa betetzen zuten herritarrek txaloz hartu

zuten udal korporazio berria. Aipatzekoa da bertze lau zinegotziak izanen dituen Geroa Bairen udal taldean, zerrendan bosgarren zen Imanol Goienetxe Maritxalar sartu dela, Maria Victoria Gortariren ordez.

Talde batekoek zein bertze-koek, «legeak horrela agintzen duelako» zin egin zuten zinegotzi kargua hartzerakoan. Ladis Satrustegik herriaren alde lanean segitzeko borondatea azaldu zuen eta «oraindik egiteko dauden erronkak elkarlanean» gauzatzeko asmoa ere adierazi zuen.

Jorge Agirre Osasuna promesas taldean ariko da

Jorge Agirre futbolariak Real Sociedad B taldearekin kontratua bukatu orduko Osasunarekin fitxatu du, bigarren taldean aritzeko. 16 urterekin ailegatu zen Donostiako taldera eta orain Iruñerako bidea hartu du.



UTZITAKOA



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren saria

Gipuzkoako II. Futbol Sarietan Beti Gazte elkarteak saria hartu zuen ekainaren 10ean Andoainen, Gizarte Garapeneko lanagatik. Hain zuzen, kultur eta kirol arloan egiten duen lanarengatik saritu dute eta elkarteak biltzen duen boluntario sareagatik. Ander Abuin presidenteak hartu zuen saria.



AITOR AROTZENA

Bertso eskolaren besta ederra

Bortzirietako bertso eskolak bertso besta ederra ospatu du ekainaren 10ean. Antoiutik hasita, bertso antzerkiak, bertso musikatuak eta bertso jolasak eskaini zituzten herriko hainbat txoko, karrika eta plazetan, eta jendea ere animatu zen kantatzera. Ondotik, bazkaria izan zuten Arranon.

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDETEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDETEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

«Lehen pausoaren urduritasuna islatu nahi nuen kartelean»

FRED RAMOS LASAGA SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

32 urteko lesakarraren 'Pausu bat' irudiak iragarriko ditu aurtengo bestak, aurkeztutako zortzi lanen artean bozkatuena izan baita. Hamar urte zituen lanik aurkeztu gabe

A. AROTZENA LESAKA

Fred Ramos gustura eta kontent dago, laugarren saiakeran lortu baitu lehiaketa irabaztea. **Lehenbiziko aldia da lanen bat aurkezten duzula? Espero zenuen irabaztea?**

Hau da lanak aurkezten ditudan laugarren aldia, baina lehen aldiz duela hamabi urte egin nuen. 2011n, 2012an eta 2013an aurkeztu nuen, baina erran nuen: 'Hau zaila da, hau ez da nirea' eta hamar urtez ez dut lanik aurkeztu. Aurten bai kartel baita portada lehiaketara ere aurkeztu dut eta, kasualitatez, kartela saritu dute. Sorpresa handia izan da, baina beti baduzu esperantza ttiki bat. Berako bestetako lehiaketara ere aurkeztu izan dut, hura irekia baita, eta aurtenean ere aurkeztu dut. Suerte pixka batekin igual badugu zerbait!

Ezpatadantzaria hartu duzu oinarri... Nolabait Lesakako Sanferminetako ikonoa da hori?

Kartelerako argazki bat atera nuen, ni eta bertze bi ezpatadantzari ageri garena. Hankak hartu eta horretan oinarritu nintzen. *Pausu bat* izenburuarekin, ezpatadantzariak eman behar dugun lehen urrats hori adierazi nahi nuen, urduritasun momentu bat izaten da eta aunitzetan ez dakizu zein hankarekin hasi ere. Kartelaren fondoan bertze argazki bat bada, elizarako igoerarena. Lesakan ezpatadantzaria bestaren ikonoa da, ga-



Fred Ramos, sanferminak iragarriko dituen 'Pausu bat' kartelarekin. A. AROTZENA

rrantzi gehiena ematen diogu eta hori erakutsi eta islatu nahi nuen

Beraz, zu zeone ere ezpatadantzari izan zara. Zenbat urtez? Nolako esperientzia izaten da?

Sei urtez izan nintzen ezpatadantzari eta izugarri polita da. Entsaiauten hiru urte egin nituen eta San Fermin egunean dantzari hurrengo hiruak. Ttikitatik joaten nintzen Zubigainekoa ikustera eta beti erraten nion amari nik ere dantzatu nahi nuela, gosta ala gosta. Entseguetan hasi nintzenean, ama harro, segidan hasi zen jantzia josten. Ateratzeko aukera izan nuen zenbait urtez eta gustura. Lehenbiziko urte horretan beti urduri zaude, tentsioa... bezperan

goiz joan behar duzu etxera, ongi aguantatzeko, baina ederra da.

Lehiaketa honetan aurten arte ez, baina uste dut Beti Gazteko argazki rallyan edo lehiaketan ere sariren bat irabazi duzula... Kamera gibelean aritzea gustatzen zaizu?

Bai, Beti Gazteko antolatzen duen rally horretan parte hartzen dut eta urteren batean sariren bat lortu dut eta gustura. Aukera polita da herrian

«TTIKITATIK ARGI NUEN ZUBIGAINEKOA DANTZATUKO NUELA NOIZBAIT»

bertan horrelako lehiaketa bat izatea. Telebistan ere lan egin dut, futbol partidak, pilota partidak, hauteskunde garaian zenbait alderdientzat ere zenbait bideo-lan egin ditut. Gustatzen zait irudiaren mundu hori.

Sanferminetan, zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta guttien? Sortzen den giro berezi hori gustatzen zait, batzuk nahia go dute eguna eta bertze batzuk arratsa... adinaren arabera aldatzen joaten da eta orain nahia go dugu egunez, goizean ongi gosalduta, bazkaldu eta gero arratsa ere zerbait aprobetxatu, baina sobera luzatu gabe. Bertze batzuk erabat gautxoriak dira. Herrian sortzen den zikinkeria da guttien gustatzen zaidana, bestak bukatzen direnean gelditzen den usain hori.

Peñan eguna ere berezia izaten da... Zein peñakoa zara eta nolakoa izaten da egun hori?

Altxadi peñakoa naiz eta hagitz gustukoa dugu. Goizean gosaltzeko gelditzen gara (ez denak, batzuk bestondoarekin daudelako), baina bazkarirako bai denak izaten gara eta aunitz gara peñan. Azken urteetan sagardotegian egiten dugu eta harat joateko eta handik bueltatzeko bidea badugu, baina peñen jautsiera-rako hor gaude.

Posible bazenu, zer gehituko zenuke egitarauan? Eta zerbait kenduko zenuke?

Kendu ez nuke deus kenduko. Gehitu, ez dakit. Lehenago mariatiak izaten ziren, betizuak arratsean... Karrika animazio pixko bat ere jartzen ahal da, karridak gehixeago alaitzeko, baina gehienetan nahiko animazio bada.

Uztailaren 11n, bestondoa ohatzean pasatzen dutenetakoa edo Iruñera joaten direnetakoa zara?

Herriko bestetako borts egunekin nahiko izaten dut eta ez dut Iruñera joateko ohiturarik. Egundak deskantsatzen saiatzeko aprobetxatzen dut, hurrengo egunean lana izaten dudalako.

Xabier Etxarteren eskuetara pasatu da aginte makila

Hogeita hamar urtez alkate izan den Migel Mari Irigoienen eskutik hartu du ekainaren 17ko ekitaldian

IRUNE EIZAGOIEN

30 urtez alkate izan den Miguel Mari Irigoienen lekukoa hartuta, Xabier Etxarte Mikeles-torenak hartu zuen alkatearen aginte makila ekainaren 17an. Herri Taldeak lau zinegotzi eta EH Bilduk hiru dituzte agintaldi honetan.

Turismo bulegoa

Udarako ordutegi zabalagoa izanen du turismo bulegoak. Uztailaren 5etik aitzinera, aste tartzet, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egonen da zabalik (astelehen



Xabier Etxarte eta Migel Mari Irigoien.

arratsaldeak itxita) eta aste-buruetan 10:30etik 13:30era. Kultur Etxearen ordutegia, abuztu bukaera arte, 10:00etatik 13:45era izanen da.



Udaberriko pilota txapelketan parte hartu duten pilotariak. OIHAN IPARRAGIRRE

Udaberriko XI. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte ekainaren 14an

Ekainaren 14an jokatu ziren udaberriko XI. txapelketako finalak. Guztira 26 pilotarik parte hartu dute (6-14 urte artekoak). Ttikienek binaka eta bertze guziek binaka jokatu zuten txapelketa. Ttikien mailan txapelkunak Xiker Olagarai eta Joanes Pinillos izan ziren, benjaminetan Ro-

meo de Caceres, infantilen lehenengo taldean Ibai Azkarraga eta infantilen bigarren taldean Erik Igoa. Finalen ondotik, sari banaketa, zozketa eta berendua egin ziren Altxataren eskutik. Bestetako binakako txapelketa dute orain erronka, eta finalak abuztuaren 17an jokatuko dituzte.

Andra Mari dantza ikuskizunaren hirugarren edizioa arrakastatsua

I. ELIZAGOIEN

Herritar andana elkartu zen frontoian ekainaren 17ko ikuskizunerako herriko dantzari helduenek, musikariek eta kantariak prestatutako saioaz gozatzeko. Andra Mari dantza taldearen ikuskizunaren hirugarren edizioa arrakastatsua

izan zen. Joseba Olagaraik gidatuta, XVIII. mendera bidaiatu zuten ikusleek, orduan kokatutako istorioa baitzen emanaldiaren ardatza. Altxata Elkarteak kudeatzen duen dantza taldeak, abuztuaren andremarietan eskainiko du hurrengo saioa.



Andra Mariko dantzariak saioaren ondotik. MAITE GOIENETXE



- ▲ Adinekoentzako egoitzak
- ▲ Egonaldi iraunkorrak
- ▲ Egonaldi motzak
- ▲ Errehabilitaziorako egonaldiak
- ▲ Aisialdi egonaldiak
- ▲ Susperaldi egonaldiak

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta. Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatuko dizkizugu

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - IRUN

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caserresidencial.es



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



BEÑAT MITXELENA DANBORIENA
ARANTZAKO UDALA

«Bestetan Arantzako plaza bete-betea egoten da eta pozgarria da»

Arantzako turismoa «ongi» dagoela dio Beñat Mitxelenak, «jende pila etortzen da kanpotik eta turismotik bizi direnak ongi ari dira lanean. Gainera, herriak ongi hartzen du kanpoko jendea. Orain pisu turistikoaren kontua erregulatzen saiatu gara, landa turismoa baserri giroan ulertzen dugulako». Herrian badago zer egin, bai kanpotarrentzako eta baita arantzatarrentzako ere; «noiz-behinka kontzertuak, aurkezpenak eta solasaldiak antolatzen ditu Euskara Mankomu-

nitateak, eta urte osoan egun seinatuak ditugu; inauteriak, bestak, kultur egunak... bertze herriekin konparatuta, bestetan jende pila dantzatzeko du eta plaza bete-betea egoten da. Pozgarria da, harro egoteko modukoa».



MARI PIERRE AGERRE
URDAZUBIKO TURISMO BULEGOA

«Bizikleta elektrikoaren alokairua herria ezagutzeko modu desberdina da»

Herri bisitatua da Urdazubi, eta udan prest daude bisitari gehiago hartzeko; «leku berezia da eta jende aunitz etortzen da mugako bi aldeetatik». Eskaintza zabala dute bisitariendako: «klastroa euskal artisten erakusketarekin eta interpretazio zentroarekin; kobazuloak eta XVIII. mendeko errota bisita gidatuekin; Dantzarinea auzoa erostekak egiteko; eta herrigunean bertan animalien babesleku bat dugu, kanpoko espezieak ikusteko eta ukitzeko aukera ematen duena».



Ekainean berrikuntza handi bat abiatu dute: «bizikleta elektrikoaren alokairua. Plazan bertan hartzen dira eta gidari batekin edo nabigatzailearekin herriko inguruak eta mendiak ezagutzen ahal dira eta azalpenak ematen dituzte».



JASONE ASTIBIA LEGORBURU
BAZTANGO TURISMO BULEGOA

«Pandemia aurreko datuetara bueltatzen ari gara, bulegoak bisitari aunitz ditu»

Duela 17 urte inguru Elizondoko etnografia museoan hasi zen lanean Jasone Astibia; «bisitariak mapak eskatzen zizkidaten eta nik udalari eskatzen nizkion, eta azkenean turismo bulego bihurtzen bukatu zuen». Gaur egun plazako eraikinean egiten du lan, eta «bisitariak artatzea» du ardura nagusia; «aunitzek deitu edo idatzi egiten dituzte galderekin. Inguruan turismoan jarduten dutenak, landetxeak dituztenak edo bisita gidatuak ematen dituztenak

ere etortzen dira». Udan eta Aste Santuan izaten dituzte bisitari gehien, «eta pandemia aurreko datuetara bueltatzen ari gara: urtean 25.000 pertsona inguru etortzen dira turismo bulegora, batez ere Madrildik eta Kataluniatik».



FABRICE IPARRAGIRRE
SARAKO LEZEAK

«Guretzat kalitatea funtsezkoa da eta gure gune naturalak zaindu behar dira»

Sarako lezeetako zuzendari berria da Fabrice Iparragirre. Herri kontseilaria izan da eta taldeak, proiektuak eta aurrekontuak gidatu izan ditu; «egokitzeko gai naiz eta bertako talde autonomoarekin proiektu interesgarriak eramanen ditugu». Lezeetan «gehienentzat egokia den bisita gidatua» dute: «historiarreaz, geologiaz, eta naturaz aritzen gara, baita euskaldunen jatorriaz eta mitologiaren ere». Honi buruz sakontzeko bertako museoak libreki bisita

tatu daitezke, eta kanpoan parke megalitikoak dute. Udan 30 bat bisita egiten dituzte egunero, «bisitarien fluxua kudeatzea erronka handia da, baina guretzat kalitatea funtsezkoa da eta gure gune naturalak zaindu behar dira».



Besten programaren azalerako lehiaketa deitu du udalak

Abuztuaren 11 bitarte aurkez daitezke udal bulegoetan eta irabazleak 150 euroko saria izanen du

ANA ETA ITZIAR

Herriko besten antolaketa lanetan gogor dabilta besta batzordeko kideak. Honen harira, Udalakeskuprogramaren azal lehiaketa antolatu du aurtengoan ere, 2023ko sanmigeletako eskuprogramaren azala aukeratzeko.

Marraskiz edoz argazkiz eginak aurkezten ahal dira lanak, 27x19 cm-ko neurriarekin. Derrigorrez, *Igantzi. Sanmigelak 2023* testua agertu beharko da. Igantzin sortu edota bertan bizi direnek parte hartzen ahal dute. Lanak

aurkezteko epea zabalik dago abuztuaren 11 arte, honelako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz (Lana sobre batean sartuta aurkeztu behar da udal bulegoetan, izenburuarekin eta barrenean bertzeak egilearen datuak). Saritutako azalaren egileak 150 euroko saria irabaziko du. Saritutako lana udalaren esku geldituko da eta bertzeak itzuliko dira, baina programan argitaratu ahal izanen dira. Epaimahaia Besta Batzordeko kideek eta herritarrek osatuko dute.

Eskola itxi eta igerilua ireki dute uda giroko usainean

Uda giroa sumatzen da dagoeneko herrian barrena. Igerilekuak idekiak dira dagoeneko eta jadanik azkarki dira uda osorako saldutako bonoak. Eskolan ere, azkeneko egunak izanik, hainbat ekitaldi antolatu zituzten; hala nLesakako Harriondoan egindako an-

tzerki emanaldia, landutako proiektuen aurkezpenak, azken eguneko bazkari berezia, eskolako etapa akautu eta kanpora ikastera joanen diren agurra eta ikasturte akabailako azken ateraldia Hondarribira egin zuten ereiarioaren 20an.

Guraso Elkarteko juntan aldaketak egin dituzte

Ereiarioaren 16ko bileran bi urterako familiak sartu dira juntan: Mitxelena-Loinaz, Telletxea-Tapia, Bereau-Txoperena eta Larzabal-Mutuberria. Iaz sartutako Retegi-Mujika, Almandoz-Urbistondo, Casamajor-Iguzkiagirre eta Bazterrika-Antxordokirekin ariko dira.

Trenbidea itxita eta herriko bi gazte mantentze lanetan

Trenbidean egiten ari diren eskoilera dela eta, uztailaren 30a arte Berrizaundik Sunbilara doan trenbide zatia itxia egon dela jakinarazi dute. Bertzetik, azken hiru hilabeteetan praktketan aritu diren bi gaztetxoak udan aritzeko kontratatu ditu udalak.



ANA ETA ITZIAR

Baratzondokoen ateraldia Milagrora

Joan den ereiarioaren 18an Baratzondo elkartetik Milagrora egindako irteeran ederki pasa zuten herriko nagusienek. Argazkian ageri den gisan, egun borobila pasa ondotik, bertako azokatik puska aski goxoak ekarri zituzten etxera, Milagroko gerezi famatuak tartean.



UTZITAKOA

Canabal-Aldabe Espainiako txapelkun

Espainiako federazio arteko pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten ekainaren 15ean Logroñon, Nafarroa eta Errioxaren artean. Binakako txapelketan, Oihan Canabal eta Joseba Aldabe suertatu ziren txapelkun, Errioxako Gutierrez eta Altuzarra bi jokotan menpean hartuta (10-3 eta 10-7).

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

Jauzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

32 neska-mutiko hasiko dira udalekuetan

Uztailaren 3tik 28ra bitarteko goizetan eskolan bilduko dira eta hiru begirale izanen dituzte

NEREA ALZURI

Eskolako oporrak hartuta, heldu den astean udalekuetan hasiko dira neska-mutikoak. Zehazki, uztailaren 3an abiatuko dira Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udaleku irekiak. Aurtentzen, hiru eta hamabi urte bi-

parteko 32 haur eta gaztetxok parte hartuko dute eta uztailko goizetan, 10:00etatik 13:00etara, eskolan bilduko dira.

Eurekin batera, Idoia Artola, Ane Larralde eta Irati Uranga izanen dira udalekuetako begiraleak.



Dokumentalaren ondotik hitza hartu zuten protagonistak. G. PIKABEA

Arantzako irratitari eta garai hari buruz gehiago ikasteko aukera ederra

N. ALZURI

Udalak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, Arantzako irratia inguruko 10 Watt bakarrik ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izan zen herrian. Duela urte batzuk, Oier Fuentes zinemagile beratarrek ikerketa lana abiatu zuen beka bat lortu ondotik eta Arantzako 60. hamarraldian izan zen irratitari buruzko informazioa eta materiala biltzen hasi zen lana osatzeko.

Jabier eta Esteban, orduan herrian apez zirenek martxan paratu zuten irratia eta euren

senitartekoen emaniko materialetik eta Iruñean Irrintzi dorrean zegoen bobina batek abiatu zuen guzua. Arantzarekin ere bildu zen Oier, irratitari buruz zer oroitzen zuten galdetuz.

Film laburra ikusi ondotik, gonbidatuen artean zeuden Maixepa, Pepi, Mari Karmen, Luzio eta Vicenteren lekotasunak aditzeko aukera izan zen eta hurbildutakoen artean ere garai hartaz solastatu ziren. Dударik gabe, Arantzako irratitari eta garai hari buruz gehiago ikasteko balio izan zuen hitzorduak.

Guraso elkarteko zuzendaritza batzordea berria

Joan den ekainaren 16an guraso elkarteko junta berri zuten. 49 familiak zuten botoa emateko aukera eta 22ren artean aukeratu behar izan zuten. Botoak kontatuta, Itsaso Bereau, Maite Goñi, Ines Zelaia eta Ainhoa Alzuri aukeratu zituzten juntakide.

Bertze urte batez segituko duten Maitere Pagola, Leire Hualde eta Mirari Maizekin osatu dute taldea. Eli Iturria, Maria De Rueda, Mikel Leiza eta Rakel Arotzena, berriz, juntan bi urte egin ondotik atera dira.

Euskara erabiltzeko eta sustatzeko dirulaguntza

Udalak 991,14 euro hartuko ditu Euskarabidea-Euskararen Nafarroako Institutuaren eskutik, euskara erabili eta sustatzeko. Erakundeak 915.000 euroko laguntzak eman dizkie 92 toki erakunderi eta Arantzako Udala dago onuradunen artean. Diruz lagundutako proiektuak gisa aunitzetakoak dira: merkataritzaren arloko programak, literatur lehiaketak, transmisio kanpainak, eskolaz kanpo haurrentzako tresna eta produktu digitalak, irakurketa kanpainak eta ahozko erabilera sustatzen duten programak.



UTZITAKOA

Lau neska-mutikoren jaunartzea

Argazkian ageri den laukoteak lehen jaunartzea egin zuen ekainaren 11n. Beheitiko lerroan Oier Iparragirre Alberdi, Izaro Landa Iparragirre, Beñat Ibarra Bereau eta Larraitz Goñi Aranguren ageri dira, gibelean, Lucia Iparragirre, Martin Legarra apeza eta Angel Mari Ordoki dituztela.

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, tellatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

ANELAN
LAN BERTIKALAK

☎ 948 031 174
✉ info@anelan.pro

Talde berrituarekin Amets Indak segituko du alkate

Ekainaren 17an kargua hartu zuen udal taldean aurpegi berriak eta beteranoak ageri dira

MAIDER PETRIRENA

Amets Inda Gorriarekin berzte lau urtetarako alkate kargua berrartu zuen ekainaren 17an. Berarekin batera, azken agintaldian ondoan izan dituztenek eta taldera bildu berriak direnek kargua hartu zuten egun horretako ekitaldian: Florentino Gelbenzu Almandoz, Marga Erdozain Azpilikueta, Josune Agirre Maritorea, Ane Petrirena Insausti, Pako Errandonea Zubieta eta Irune Agirre Maritorea.

Igerilekua zabalik

Udako denboraldia ekainaren 15ean hasi zuen igerilekuak. Urtero bezala, irailaren 15era bitarte irekita egonen da 12:00etatik 20:00ak bitarte. Bonoak erosi nahi duten guztiek Herriko Etxean eskura



Udalbatza berria. UTZITAKOIA

dituzte. Prezioei dagokienez, denboraldi osokoa, 6 eta 12 urte artekoendako 25 euro gostako da; 12-18 urtekoek 35 euro ordaindu beharko dute eta 18 urtetik goitikoek, 50 euro. 6 urte bitartekoek dohainik izanen dute sarrera denboraldi osoan. Hilabete-koa: 6-12 urte: 20 euro; 12-18 urte: 25 euro; 18 urtetik doiti: 35 euro. Egunekoak: 6-12 urte: 3,5 euro, 12-18 urte: 4 euro; 18 urtetik goiti: 5 euro.



UTZITAKOIA

Mugaz gaindiko errugbi txapelketan

Ekainaren 10ean Zarautzen Mugaz Gaindiko errugbi txapelketa jokatu zen. 14 urtez beheitiko Nafarroako selekzioarekin aritu ziren Kemen Sagarzazu eta Xabier Gorria. BRT taldean aritu dira Aimar Agesta, Ander Apeztegia, Ander eta Unax Larraburu eta Eneko Sagarzazu ere.

Ohiturak zuzen bete zituzten Bestaberri egunean

Ekainaren 11, Bestaberri eguna. Ohiturari eutsiz, txistulariek udala eta apaiza elizaraino lagundu zuten. Meza akitutakoan, banderaren dantza egin zuen Florentino Gelbenztuk. Denbora lagun prozesioa egin eta akabailan berriz ere bandera dantzatu zuen.



Bestaberriko prozesioa. GARAINA IRIARTE



MAIDER PETRIRENA

Bueltan gara dantza jaialdi ederra

Bueltan gara jaialdi ikusgarria eskaini zuten herriko dantzariak ekainaren 9an. Lerro hauen bidez eskerrak eman guzti hau posible egin duten dantzari, musikari (Majoxko taldea eta herriko txistulariak), soinu teknikari eta, nola ez, irakasle lanetan ibili den Kristobal Zelaietari.



OIHANA ARRIOLA

Mendaur eskolaren ikasturte bukaera

Ikasturtea akitzeko Mendaur trikitixa pandero eskolak, ekainaren 14an Aurtitzen bere ohiko kontzertu ederra eskaini zuen. Argazkiko Ainhoa Armendariz Aizkorbe, Aurkene Iturralde Ezkurra eta Endara eta Haizea Larzabal Arriola herritarrek parte hartu eta gozatu zuten.



Bazkideetako batzuk Kopenhagen lehenengo egunean. UTZITAKOA



Paisaia zoragarriak ikusi dituzte Norvegian. OSTAIKZA

Norvegiako fiordoetan ibili dira 167 bazkide

Bortz eguneko itsas ibilbidea egin dute Norvegiako fiordoetan barrena. Bidaian izan direnak gustura ibili dira

TTIPI-TTAPA

Urte hasieran hasi ziren presatzen elkarteko kideak Norvegiarako bidaia, eta sei hilabeteren ondotik, ekainaren 1ean iritsi zen bertara abiatzeko eguna. 167 bazkide joan ziren Norvegiara Costa Firenze izeneko itsasontzian fiordoak ezagutzeko.

Astebeteko bidaian bortz portutan egin zuten geldialdia eta bertatik eguneko irteerak antolatuak zituzten. Hainbat leku ikusi zituzten irteeretan. Kopenhagen bertako sirena eta erregearen jauregiak bisitatu zituzten; Brikisdal glaziar ikusgarria ikusi zuten, eta parte hartu zuten denentzat irteera ikusgarriena izan zen. Pena izan zen denek ezin izan zutela irteera hori egin, eta horren ordez Overlandera joan ziren bertze batzuk. Horiez gain, Skudenshvn herria ikusi eta bertako arrantzaleen historia ezagutu zuten. Azken irteera Lysefjordera egin zuten, itsasontzi txikiago bat hartuta fiordoa barrenetik gurutzatzeko.

Bidaia kiraundako zazpi egunetan hango paisaiaz gozatze-

ko aukera izan zuten: ur jauziak, lakuak, zelai berdeak, mendi altuak... Egutero 20 orduz zen egun argiz, eguzkia ia ez delako sartzen urte sasoi honetan. Gainera, nabarmentzekoa da aste osoan eguraldi ona izan zutela. Temperatura freskoa zuten, baina normala, ipar polotik 700 kilometro eskasera egon baitziren.

Zazpi egun pasazituzten 5.000 bisitari eta 1.000 langile zituen Costa Firenze itsasontzian, eta polita eta txukuna izateaz gain, janari izugarri ona izan zuten. Hagitz gustura itzuli dira bidaian ibili direnak.

Buletinean akatsak

Banatu berri duten buletinean akatsak daudela jakinarazi dute. Buletinaren azalean 1. seihilekoa jartzen du, baina bigarre-na da.

Bertzalde, bi akats daude gaztelaniazko bertsioan: Lizarako eta Lodosako eguna azaroaren 9an izanen da, eta La Palmako bidaia, aldiz, azaroaren 13tik 20ra. Elkartetik barkamena eskatu dute azken buletinean dauden akatsen-gatik.



Hainbat irteera egin dituzte bazkideak bidaian egondako 5 egunetan. OSTAIKZA



Paisaia zoragarriak ikusi eta argazki ederrak atera dituzte. OSTAIKZA



Elkarteko bazkideetako batzuk Kopenhageko sirenarekin. UTZITAKOA

Arantxa Arregi alkate heldu den lau urteetan

Hasieratik zerrendaburu eta alkategai izan den lehen emakumea da Arregi

OIER ZULAIKA

Azken bi urteetan alkate izan den Leire Ortuosteren eskutik aginte makila hartuta, Arantxa Arregi Alberro izanen da herriko alkate heldu den lau urteetan. EH Bilduk berderatzi zinegotzietatik zortzi lortu zituen maiatzaren 28ko udal hauteskundetan botoen ia %80 lortuta. Bere alderdiko zortzi zinegotzien botoa lortu zuen Arregik ekainaren 17an egindako kargua hartzeko ekitaldian.

Hasieratik zerrendaburu eta alkategai izan den lehen



Ortuoste eta Arregi. UTZITAKOA

emakumea da Arregi. Hala ere, lehendik bi emakume ere izan dira alkate herrian: azken agintaldian Xanti Utergaren lekukoa hartu zuen Leire Ortuoste eta, lehenago, Joxe Irigoienen ordez epe labur batez sartu zen Teresa Gaspar.

Donezteberen alde lan egiteko erronkari «ilusioz eta gogoz» lotuko zaiola adierazi zuen Arregik kargua hartzeko ekitaldian.

Arregirekin batera, EH Bildutik Juan Telletxeak, Maider Illarregik, Fernando Gallegok, Santiago Belarrak, Iasone Fresnedak, Nerea Zazpek eta Aritz Meokik hartu zuten kargua. UPNko zerrendako bi lehenbizikoeak Serafin Lopez Florezek eta Idoia Agirre Oteizak karguari uko egin diotenez, zerrendan hirugarren zen Iñaki Iriarte Lopezek hartu zuen zinegotzi kargua, eta bere buruari eman zion botoa.

Doneztebe Futbol Taldearen Eguna arrakastatsua

Ekaineko hirugarren asteburuan ospatu zuen futbol taldeak bere eguna. Asteburu osoan futbola izan zen protagonista. Futbol partidak jokatu zituzten ortziralean eta larunbatean, eta horrekin batera mus txapelketa, herri afaria eta gaupasa egin zituzten.



Mus txapelketako irabazleak. DFT

«Karrikan euskaraz egiteko ohitura indartzea da nire asmoa»


UNAX ZULAIKA IRIGOIEN EUSKARABENTURAKO PARTE HARTZAILEA

Uztailaren 1ean hasiko da Euskarabentura espedizioaren laugarren edizioa, eta bertan izanen da Unax Zulai-ka Irigoien herritarra. 15 urte ditu, eta mutiko euskaldun, futbolzale eta Athletic zale amorratutzat dauka bere burua.

Aitzinetik ere bere bi anaia zaharragoak osatua dute espedizioa, eta horrek eta «Euskal Herria sakonago ezagutzeko aukera paregabeak» animatu du laugarren edizioan izena ematera. «Anaiak bizitakoa eta kontatu didatena oso interesgarria izan da».

Espedizioan parte hartzeko, ordea, aitzinetik proiektu bat osatu behar izan du. Bere kasuan gizakiak naturan duen eragina gai hartuta, ipuin interaktibo bat egitea erabaki zuen: «Istoriotean momentu zehatz batzuetan irakurleak istorioak nondik jarraituko duen aukera deza-ke eta ikuspuntu desberdin bat emateko animalia txiki batzuen begiradatik kontatu nuen», azaldu du.

Kontatu duenez, epea ireki zutenean hasi zen buruan bueltak, baina azken aste-rra arte ez zen lana egiten hasi eta azken egunean bida-



UTZITAKOA

li zuen. Hori dela eta, sorpresa ere izan da Euskarabenturarako aukeratua izatea: «Alde batetik ez nuen hautatua izateko esperantzarik azken momentuan egin nuelako, baina bertzalde, bai banuen sartzeko itzaropena lana ongi egin izanaren tentsazioa neukalako».

Abentura hasteko egun gutti falta direla, gauzak prestatzen hasia da gaztea: «Gura-

soekin erosi beharrekoak begiratzen ari gara, anaiei galdetu diet zer eraman behar den», kontatu du. Espedizioan «jende eta leku berriak ezagutzeko esperantzarekin da, eta baita bertze Athletic zale- ren bat ezagutzeko gogoz ere».

Parte hartzaileen hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskarabenturaren helburuetako bat, eta bere kasuan horretan aldaketarik ez dela izanen uste du: «Egia erran nik bai etxean eta bai karrikan euskaraz egiten dut ia beti eta ohitura horrekin segitzea eta indartzea da nire helburuetako bat. Bertzalde, euskalki ezberdinak ezagutu nahi ditut».

Joan aitzinetik mezu hau luzatu du: «Euskarabentura gazteek euskara eta Euskal Herria ezagutzeko, sustatzeko eta babesteko aukera ezin hobea da».

1826an herrian paratutako bertsoak aurkitu dituzte

Herriko maisu Fermin Altxu Beristaini paratu zizkioten bertsoak. Bertso horien benetako egilea zein den, ordea, argitzeko dago

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Ekaitz Santaziliak eta Ricardo Urritzolak 1826. urtean Donezteben paratutako bertso batzuk aurkitu eta aztertu dituzte. Urte hartan denuntzia paratu zioten Fermin Altxu Beristaini. Doneztebeko eskolako maisua zen, eta herriko semea.

Herritar batzuei leitzen eta eskribitzen erakusten ari zitzaieला aprobetxatuz, Doneztebeko Frantziska Etxenike, Maria Martina Andiarena ostatuko neskame donamariarra, Donamariako Aroztegiako Bitoriana Armasa (labaiendarra sortzez), Iruñeko bi neskato eta bertzeren bat ere haurdun utzi zituen: sei, guzira. Armasari ezkontzeko promesa egina zion. Bere kontrako juizioa izan zen, eta dokumentazio guziaz Nafarroako Errege Artxibo Nagusian dago bildua.

Altxuk bere burua zuritu nahi izan zuen, baina alferrik. Hondarrean, Ceutara zortzi

urterako soldadu joatera kondenatu zuten, maisu aritzeko baimena galdu eta juizioaren kostuak pagatu ondotik.

Herrian, bertsoak paratu zituzten maisuaren kontuen berri emanaz. Altxuk Geronimo Goñi, Martin Jose Etxenike, Martin Etxaideren mutila eta Kosme zurginaren semea salatu zituen, koplakantari ibiltzeagatik.

Gainera, Altxuri bertso-papera bera erakutsi, eta letra Norberto Goienetxe errege-notarioarena zela erran zuen; Doneztebekoa izaki hura ere.

Bertso-papera eta erdarazko itzulpena juizioaren dokumentazioarekin batera aurkitu dituzte Santaziliak eta Urritzolak. Diotenez, «ikus ten da euskara hori ez dela Doneztebekoa, eta bai Gipuzkoako idazle jantziek ibiltzen zutena». Galderazabaldute: «Nor ote dugu benetan bertsolaria?».

Honatx bertsoak, gaur egun go idazteko manerara ekarriak.

1-Kanta berri eder bat paratzen naiz hasi, Bertiza(ra)ngo ballean desaten ikasi. Egia esan gabe ez nezake utzi: hango gazteria txit gustora da bizi.

2-Santestebanen dute maisua Don Fermin. Eskola paratua, ez du batere min. Gizon abila dana badakigu berdin; prodigio handiak omen ditu egin.

3-Eskribatzen omen du asko eta garbi. Halakoak behar du 'enseñanza' jarri. Gizona lan hobetan ez diteke ari; herrian omen dauzka lau dama ernari.

4-Maisu on izatea ez da txit milagro; apendiz urteak goiz zituen igaro. Haren kontuak ongi jakinean nago: Pamplonan izan ditu beste bi le(he)nago.

5-Esku arina du ta pluma es pizuba. Bere ofizioan guziz jakinzuba. Nahiz dala mansoa ta orobat izua, damak eskolatzeko hura zer maisua!

6-Eskola jarri zuen berak hala nahita, edozeinek es baitu hartarako gaita. Nafarroa guzian siñalea baita, ezkondu baino le(he)n da sei umeren aita.

7-Maizuari ezanik amodio pina, eskolara joaten zitzaion Martina. Agirian daukate hango lan egiña. Orduan gozo zana orain txit da mina.

8-Mari Martin gaisoa, horra zure ditxa. Maizu jakinzunakin kuidados zabiltza. Maite izan bazindu gizon prestu giza, etzizun ukatuko emandako hitza.

9-Egin zuen orduan zurekiko lana. Laizter abiatu zan beste batengana, baita logratu ere deseo zebana: dama gazte bat, zeina dan Bitoriana.

10-Ikusirik hain gazte, guri eta mardul, Bitoriana zuen hartu bere lagun. Halako parajejan nahi litzake jardun; hura ere tristek ezin logratu du.

11-Dama Bitoriana, begirik ez buzti: maizuak maite zaitu, ez halere gutxi. Zurekin ezkondu nahi zukean bizi, baldin le(he)nagokoak baliote utzi.

12-Egin ezkerotzanik horrenbezte neke, errenta seguru bat gizonak nahi luke. Trabajatzen omen du anitz eta merke: sabela omen dio Frantziskari bete.

13-Nafarroan ez dago halako mutilik: nunbaiten ere badu beste bat ixilik. Gordea egon arren, ateak itxirik, noizbait agertuko da, hil edo bizirik.

14-Sei andre omen dauzka gaur bere karguan. Ea nor arkitzen dan halako graduan! Inork ez du berdintzen Espainia barruan: ojala banengoke ni harren larruan.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...







Aureskua dantzatu zioten ikasleek Mixel Gerekari. UTZITAKOAK

Mixel Gerekari agurra egin diote Pulunpa eskolan

30 urtez irakasle izandakoa omentzeaz gain, eskolako abestia eta bideoklipa aurkeztu zuten ikasturte bukaerako bestan

ARKAITZ MINDEGIA

Ekainaren 20an akitu zuten Pulunpa eskolako ikasleek aurtengo ikasturtea. Azken egunetan ateraldiak, taillerrak, bizikletarekin txangoak egin bazituzten ere, azkeneko eguna ikaragarria izan zen ekitaldi ugari egin baitzituzten Pulunpa eskolaren inguruan. Herri kirolak, seigarren mailako en agurra, irakasle batzuei agurra, guraso elkarte eta jantokiko kudeatzaileek antolatutako bazkaria, apar besta... Momentu politak bizitu ziren, negar eta irri artean. Horieta-ko bat Mixel Gereka, ingeleseko irakaslearen agurra izan zen. 30 urtez Pulunpa eskola eta inguruan aritu da, belau-naldiz belaunaldi hizkuntza hau erakutsiz. Agurraren parte izan ziren bere lankide eta lankide ohiek eskaini zioten bideoa, ikasleek dantzatutako Aureskua eta denek abestu zioten bertsoa. Berak eginiko lan guziaz eskertzeko modua izan zen.

Abestia eta bideoklipa

Hala ere, kurtso bukaera honetako jaialdian eskolako



Mixel Gerekari makila opari.

abesti eta bideokliparen aurkezpena egin zuten. Jon Koldo Arburua irakasleak sorturiko abestiak Karlos Semperek grabatu zuen. Kolaborazio aunitz izan ditu, Igor eta Iñigo Telletxea anaiak baxuan eta baterian, Arkaitz eta Aina- ra Mindegia trikiarekin eta koruekin, Ruth Etxebeste eskolako zuzendariak ahots nagusia eta, nola ez, haurrak ere beraien ahotsekin. Abestiari letra polit eta ederra sortu zion Iker Gorosterrazu bertsolariak. Azkenik, bideo-klipa Ekaitz Bertiz Sunbillako gazteak egin zuen. Abestiaren egileak aurkezpenean erran zuten bezala, eskolako jendearekin egindako abestia, eskola eta eskolarentzako dena.

Jabier Bereauk segituko du alkate dotozen lau urtetan

Ekainaren 17az geroztik udal berria lanean ari da. Jabier Bereauk alkate segitzen du eta bere alboan azken agintaldiko zinegotziak eta bi aurpegi berri izanen ditu. Ilusio eta gogo handiarekin hasi dute agintaldia, herriarendako lanean aritzeko prest.

Mendaur eskolak kontzertuekin akitu du ikasturtea

Ikasturteari akabaila eman dio Mendaur trikiti pandero eskolak ere. Arizkun, Elizondo eta Aurtizen eman zituzten kontzertu ederrak beraien ikasleekin. Udan hainbat herritan kalejira eta kontzertuak eskaintzeko ateraldiak izanen dituzte.



UTZITAKOAK

Nafarroako Kirol Jokoetako finaletan

Nafarroako Kirol Jokoetako finaletan aritu ziren Labriten Garazi Iñigo eta Aiora Baleztena alebin mailan eta Dunixe Alberro Sunbillako Iraide Iriarterekin kadete mailan. Partida politak jokatu zituzten bi bikoteek eta kadete mailakoek txapela ekarri zuten etxera.



MAIDER PETRIRENA

Ados eskolaren ikasturte bukaera

Ados pilota klubeko neska gaztetxoek ikasturteari bukaera ezin hobea eman zioten ekainaren 19an. Sunbillak pilotalekuan azken entrenamendua egin ondotik merienda izan zuten. Halere, batzuk Zumarragako txapelketako finala jokatu behar dute oraindik ekainaren 29an.

Errotazain berria eta udako ordutegia daukate errotan

Nahia Etxeberriak hartu du ardura eta goizez eta arratsaldez irekiko dute, astelehenetan eta asteartetan izan ezik

FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako errotak errotazain berria du. Edorta Muruaren kontratua akitu eta orain Nahia Etxeberria izanen dalan horren ardura hartuko duena udan. Horretaz gain, udako ordutegiarekin ari dira dagoeneko errotan, ekainetik irailera. Astelehenetan eta asteartetan itxita egonen da. Beste egunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara irekiko ditu atea. Informazio gehiagorako 948 45 19 26 edo 624 40 66 07 telefonoetara deitu behar da.

Errota 1785ean eraiki zuten eta gaur egun ere martxan dago aitzinako tresneriarekin. Bisita gidatuak egiteko aukera ere eskaintzen dute, artoa ehotzeko prozesua erakutsiz. Erabilitako materialen erakusketa zabala eta Ituren-Zu-



Zubietako errota. ARTXIBOKOA

bietako inauteriei buruzkoa ere badute.

Pottoka kontzertuan

Zubietako Ostatuan Pottokak kontzertua emanen du ekainaren 29an, ostegun ilunabarrean. Atzerriko beste musikari batzuekin bira egiten ari da abeslari eta musikari amaiurtarra eta hauek ere etorriko dira. Beti gogoko izan du Zubieta eta bira honetan geldialdia egin nahi izan du.



ESTI VEINTEMILLAS

Ezkurra II.a eta Juanenea txapeldun

Aste eskasean bi txapel jantzi ditu Aritz Juanenea saldiastarrak. Sagardoaren txapelketa irabazi ondotik (*ikus elkarriketa 54. orrian*), Erremontari herriz herri txapelketako finala irabazi zuen Zumarragan ekainaren 18an, Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrarekin batera.



ADOS PILOTA

Etxekolonea San Fermin Torneotik kanpo

Tiebasen jokaturako bigarren jardunaldian (argazkian) ere galdu egin zuen Naroa Elizalde Etxekoloneak Agirrerekin batera, Etxebeste beratarraren eta Iturriaga leitzarraren kontra. Honela, Ados elkartearen San Fermin torneoko txapelketatik kanpo gelditu da herriko pilotaria.



IZASKUN ZUBIALDE

Bestaberri eguna giro ederrean

Bestaberri eguneko elizkizunak egin ziren, prozesio eta guzti. Maiatzean aingeruz ateratzen diren neskek ere azken ateraldia egin zuten. Herritarrek egindako gaztak dastatzeko aukera eman zuen udalak (lehiaketarik ez da egiten azken aldian) eta musika izan zen Hauspolariak taldearekin.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

BERTIZARANA-MALERREKA

Argako erreginari buruz erakusketa Bertizen ikusgai

Horrela abiatuko da Kultur 2023 programa eskualdean eta uztailaren 9an Ache pa ti taldea izanen dute Donamarian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Vianako Printzea erakundea) antolatutako Kultur programaren 28. Edizioak kultura eskaintza zabala ekarriko du aurten ere gure eskualdera. Bertizen Argako erreginari buruzko erakusketa-proposamen berezi bat eta bertze jarduera osagarri batzuk izanen dituzte eta musika Donamariara, Zugarramurdira, Berara, Lesakara eta Elizondora ailegatuiko da.

Edizio berriak erakusketa, arte eta partaidetza arloen artean hibridatzen duen proposamen bat dakar, Remigia Echarren Aranguren funanbulista iruindarraren inguruan, soka gainean balentria nabarmenak egin zituen artista ausarta. Erakusketa Bertizko Lorategi Historiko-Artistikoan izanen da uztailaren 3tik abuztuaren 31ra, Estefania de Paz artistaren *Argako erregina* izenburupean.

Erakusketa hainbat jarduerarekin osatzen da, hala nola Garazi Pascualen emanaldia,



Argako erregina soka gainean.

aurkaririk gabeko funanbula, trapuzko funanbulista panpina bat sortzeko tailerra, *Argako Erregina* ikuskizun saritua eta tximeleta, libelula eta txorien tailerra.

Uztailaren 9an Donamarian

Bertizko erakusketaz aparte, Kultur programako lehen emanaldia Donamarian izanen dute uztailaren 9an. Ache pa ti taldeak joko du 20:00etan herriko plazan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Natalia Rekarte alkate Donamarian

Bertze lau urtetarako aginte makila hartu du Natalia Rekarte Oteizak Donamarian. Berarekin batera, Naiara Aizpuru Sagasetak, Patxi Lizasoain Ariztiak, Miren Arregi Mindegiak, Jon Leatxe Oskozek, Karlos Ezkurra Leonetek eta Idoia Arregi Azpirozek hartu zuten kargua ekainaren 17ko ekitaldian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jaione Zabalo bigarren alkate Ezkurran

Azken agintaldian Jaione Zabalo Juantorena izan da Ezkurrako alkate, eta hala segituko du ondoko lau urteetan ere. Berarekin batera, Pello Zestau, Jose Mari Gogortza, Bautista Mariezkurrena eta Ana Mari Otxandorena zinegotziek kargua hartu zuten ekainaren 17an.

laua
EGKUZABALA
DIBERTIGARRIA
zintzoa
merpekoo
OLDARKORRA

#ParteHartuAldaketan

Esker-onoa partetara heuren atzetan dauden istorioak ezagutu nahia badituzu sartu: repobrezia.org wibogunean

Aukeratu ez epaitzea. Parte hartu aldaketan.

Erraza da pertsoneri etiketak jartzea. Edonori egokitu dakiguke gizarte-bazterkeria egoera bat bizitzea.

Red Navarra de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social
Pobrezia eta gizarte-bazterkeria kontrako Nafarroako sarea

FINANZATZESA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

2023

Fundación Euzkoak

Fundación 'la Caixa'

Innovasocial

LESAKAKO BESTAK 2023

Egitaraua

Uztailak 6, ortzeguna Bezpera eguna

10:30ean Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren kalejira; Harriondoa Kultur Etxea – Andra Mari Zaharren Egoitza – Plaza Zaharra.

12:00etan Herriko Etxetik piztuko den altxaferoaren ezta edan emanen die hasiera aurtengo beste. Ordu berean txistulariek, soinuariak, trikitilariak, Elubxa Txarangak eta haur tikiak danborradak girotuko dizkigute herriko karrikak euren soinu alaiekin.

13:00etan *Presoak Etxera! Arranon.*

17:30ean Pilotalekuan, Tantarumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia.

20:00etan Altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, danbor-jole, Lesakako Banda eta guzti, herri erdigunetik itzulia emanez. **23:00etatik aitzinera** LIHER taldearen emanaldia Plaza Zaharrean.

Ondotik Elubxa Txaranga karriketan.

Uztailak 7, ortziralea San Fermin eguna

08:30ean Ezpatadantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari taldearen laguntzaz eginen da.

10:30ean Udaltzatza bertze agintariekin, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri erdigunetik prozesioa eginen da. Ondotik, Udaltzatza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitziko da Eskolttikira, Onin errekaaren bi aldeetan egiten den Zubigainekoa dantza ikustera. Honen ondotik, Bandera-ARBOLA doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera Igan aitzinean.

18:00etan Bezperak; Elizara joan-etorria Meza Nagusira bezala eginen



LIDERA
MOITZ KLAKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrumilko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | ledera@hortsakindia.es
@lederahortsakindia



TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASTA BESTAK

629 592 215 • BIURTANO OIZOO, 1 • LESAKA

IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA BESTAK

Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287



ONGI PASA BESTAK!

OPARIAK • BITXIAK
ENMARKAZIOAK

Albistur 39 LESAKA • T. 948 627 542

Gora San Fermin!

amura
ILEAPAINGEGIA

BITTIRIAKO PLAZA 1. LESAKA. 948637797

ONGI PASA
BESTAK!



◀◀◀◀H I R U K I D E▶▶▶▶

Eguzki panelak ◀▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395

Alkalaga Ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

ongi pasa bestak!



IZARRA
OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

Ze
goxoa

Besta onak opa
dizkizuegu!

BERA

Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

LESAKA

Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

ELIZONDO

Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE

Zazpigerutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA

Landabekoa, 2
t. 948 610 612



da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Bezperak akitu ondotik, eta ohiturari jarraiki, herriko dantzariak ZANTZOMONONA ESKU-DANTZA, AURRESKUA eta JOTA eta PORRUSALDA dantzatuko dituzte.

19:00etan Plaza Zaharrean, bertso saioa, Arrano Elkarteak antolatua. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Saioa Alkaiza, Ekhiñe Zapiain eta Peru Abarrategi. Gai jartzaile: Josu Sanjurjo. **23:00etan** Musika Plaza Zaharrean IRATZAR Taldearekin. **23:00etan DJ Aiakate.**

Uztailak 8, larunbata Peñen eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin. **09:00etan** Peñen gosaria. **10:00etan** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. **12:00etan** Betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **17:00etan** Haurrentzako Sakanako poni tikiak Eltzeta Plazan. **18:00etan** Peñen elkartzea Elutxa Txarangarekin peñen jaitsierarako. **20:00etan** OstiKda Elektrotxaranga.

23:00etan GABENARA Taldea Plaza Zaharrean. **23:00etan DJ Infernu.**

Uztailak 9, igandea Haurren Eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin. **10:30ean** Haur eta gurasoen danborrada, Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, Elutxa Txarangak lagunduta.

Ondotik Haurrentzako entzierroa Plaza Zaharrean.

Goiz eta arratsaldean Haur ikuskizunak Eltzeta plazan.

12:00etan Betizuak, Plaza Zaharrean, Elutxa Txarangarekin.

17:00etan Frontoian eskuzko pilota partidu profesionalak. Emakumezkoak: ALDAREGIA-ORBEGOZO/ ARRIETA-R. LARRAMENDI

Gizonezkoak: Banakakoa 4 1/2
ETXEBERRIA/ AMIANO

Bikoteka

LABAKA-MERINO/ XALA-BERJERA

19:00etan Elutxa Txaranga karrketan.

20:00etan eta 00:00etan Bada Giro Taldearen emanaldia Plaza Zaharrean.

Uztailak 9, igandea Gazte Eguna

Eguerdian gazte bazkaria txosnagunean. **Ondotik** Bortzirietako

ARRANO
ostalua

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!



LESAKA



BAR • RESTAURANTE

KASINO

OSTATU • JATETXEA

Jai alai eta pozgarriak
izan itzazue

PLAZA ZAHARRA, 14
TEL: 948 637 152
948 637 287

uzta bertso-poteoa.

23:00etan FERMINTXO ROCK: Hago Isilik, Ziraun, Janus Lester eta El quinto tenedor.

Uztailak 10, astelehena Herritarren Eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin.
11:00etan Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, **BANKAKO MENDITARRAK**. Ondotik Alondegiko arkupeetan. San Fermin Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatua. **11:00etan** Haurrentzako entzierroa Plaza

Zaharrean. **12:00etan** Betizuak, Plaza Zaharrean, Elutxa Txarangarekin. **12:30ean** Bermut feminista. **14:30ean** Herri Bazkaria Eitzeta Plazan.

Ondotik Musika emanaldia. **17:00etan** Kulki, Haurrentzako herri kirolak Harriondoan. **18:00etan** Txakaindik jaitisiera, **ZORTZIKO** doinuarekin. **20:30ean** Puro Relajo taldea Plaza Zaharrean. **00:00etan** **JAI-HILAK** Elutxa Txarangarekin.

Kurtsibaz Txosna Batzordearen egitaraua.



BEHEKO PLAZA 10. LESAKA · 948 627 514

WWW.KATTAGORRIA.COM



LESAKA gara



Lesakako udalak besta zoriontsuak opa dizkizue.



urtek
water technologies - uen tratamenduak

Ongi pasa bestak!!

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA,
DESKALZIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA,
BERBERAMUPENA, DEPURAZIOA,
PRODUKTU KIMIKOAK, INSTALAZIEN MANTENUA

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

ZANTZONEA JATETXEA

Gosariak, bazkariak, afariak,
pintxoak, bokatak, errazioak.



Bittina, 3 - Lesaka - 848 992 017

ESKAINZA BEREZIAKI

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!



Ongi pasa Sanferminak!

Alkalaga Ind. - 31789 LESAKA
Tel. 948 631 536 Faxa. 948 631 550
E-posta: bacalao@salazonesudana.com
www.salazonesudana.com

«Aitzinesku izatea ardura handiagoa da»

BEÑAT ORDOKI TELLETXEA

Ezpatandatzarien aitzinesku lehen aldiz



2020an hastekoa zen ezpatadantzari Beñat Ordoki Telletxea, baina urte hartan eta hurrengoan ez zen bestarik izan. Beraz, joan den urtean egin zuen lehen aldiz dantza San Fermin egunean eta aurten dagoeneko aitzinesku edo kapitain izanen da, 24 urterekin. «Joan den urtekoa egun ikaragarria izan zen, elegantea! Pandemiako bi urtetik heldu ginen eta gogo handiak genituen. Gainera, debuteko urduritasun horretan aurten aitzinesku izatea proposatu zidan Igor Gurrutxagak».

Ezpatandatzari "arrunt" izatetik kapitain izatera kontua aldatzen dela onartu digu Ordokik: «Ardura handiagoa da, entseguak ere zuk antolatu behar dituzu, denekin egon... Lehen entsegura joaten zinen, baina lasaiago, ez zenuen deus organizatu beharrik. San Fermin egunean ere, iaz ibilbide guztian bertzeen gibeletik segitu behar zenuen, bertzeak egiten zuena kopiatu, bertzerik ez, eta aurten nik gidatu beharko dut taldea, kontzentratuagoa egon behar duzu, momentu bakoitzean zer egin behar den jakin, pausuak, ibilbidea zuzen egin... Tontakeria dirudi, baina badu berea. Kotxean txofer joatea edo

kopilotu joatea bezala da, ondoan bazaude ez duzu biderik ikasten». Aurten talde gazte baten ardura izanen du Ordokik, «sei berri sartu dira, bortz mutil eta neska bat, gehienak nire adintsukoak, bakarren bat gazteagoa eta bertzeren bat zaharxeagoa».

Familiatik datorkio ezpatadantzari izatea Beñat Ordokiri, bere bi aitabiak halaxe izan ziren, baita aita eta hainbat osaba eta lehengusu ere. «Ez dakit genetikoak izanen den, baina egia da familiako ohitura badela, horrek ere laguntzen dizu dantzan hastera. Aitatzietako bat aitzinesku ere izan zen, baita osaba Kotte [Jantzi] ere», dio. Halere, «ez didate aparteko aholkurik eman, lasai hartzeko bakarrik eta aitzinera!».

San Fermin egunean ezpatadantzari ateratzeko bezperan zaindu behar ote den galdetuta, «hori norberak ikusi behar du, gozatu nahi duen edo pikka bat sufritu nahi duen», erantzun digu aitzinesku berriak. Hori bai, berak garbi du aurten zainduko dela. «Egun polita baina luzea eta nekagarria izaten da, goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko seiak arte dantzatu behar duzu. Hori gidatzeko ardura du

aitzineskuak eta hori ongi egin nahi dut».

Ez da ezpatadantzari guztien kasua, baina Ordoki tikitatik aritu da dantzan, Tantirumairu euskal folklore taldean: «Kuadrilla guztia aritzen ginen dantzan eta 18-19 urtera arte aritu ginen, talde koxkorra ginen. Ezpatadantzari ere ateratzen ginen, jaunartze egunean, Dantzari Tiki egunean Getarian, Urretxun, eta gutti goiti-beheiti aurten atera behar dugun taldea».

Aunitzek galdetzen omen diote zerk sortzen dion urduritasun gehiago. «Beharbada Aurrekua dantzatzek, -dio Ordokik- hotz-hotzean hasi beharrak, baina ikusiko dugu ailegatzen denean. Bai edo ez. Oraindik ez dugu probatu».

Beñat Ordokirentzat sanferminetako egun guztiek badute bere xarma, baina «egia da, joan den urtean ezpatadantzari atera nintzen arte, beharbada San Fermin eguna izaten zela mottelena, lehenbiziko eguneko gogoen eta peñen egunaren artean dagoen eguna, baina behin ezpatadantzari izatea probatuta, orain igual alderantziz. Egia da bezperan, txupinazorako gogo ikaragarria izaten dela, peñen egunaz zer erran... Eta bertze egunetan ere beti bada zerbait. Baina aurten, niretzat, lehentasuna San Fermin egunak dauka».

Txupinazoan ere

Baina egun handian ez ezik, bezperako txupinazoan ere bere protagonismoa izanen du Beñat Ordokik, martxoan



Ipar Irlandan munduko txapeldun suertatu zen Beti Gazte sokatira taldeko tiralari ere bai baita. Aurten,

lehen suzuria pizteko ardura izanen du sokatira taldeak. «Hura ere izugarria izan zen, lau egunez tiratu nuen eta lauretan domina lortu nuen» dio Beti Gazterekin eta euskal selekzioarekin urrezko domina bana eta zilarrezko bertze bana

lortu zituen tiralariak. «Ia-ia sanferminak bezalakoa izan zen hura, burbuila baten barrenean bezala egon ginen, bazirudien munduan ez zela bertze deus pasatzen. Sanferminak ere halaxe dira, parentesi bat bezala egiten da egun horietan eta inguruan gertatzen denaz ez gara ohartzen ere».

Gauza bat garbi dago: lehen aldiz munduko txapeldun den aitzineskua izanen dute Lesakako Sanferminetako ezpatadantzariak.

«Munduko sokatira txapelketan burbuila batean zaude, sanferminetan bezala»

GESTETIKA
IGARZABAL
Ongi pasa bestak!
Abistur 17, LESAKA - 948 637 280

PITTIN!
haurrentzako arropa denda
ONGI PASA SANFERMINAK!
T. 948 627 583
Arretxea 20, Behua LESAKA

gure baserriko esnearekin **LESAKA** egindako gazta
bertakoa, familiaz, tradizionala, naturala...
AGORLEKU BASERRIA
Izotzaldea 7
Auzoa Lesaka
ONGI PASA BESTAK!
T. 670 74 95 49 | info@agorleku.eus | www.agorleku.eus

Eloni Lesakako instalazioa, eta gaztu duden cukerekin!
ONGI PASA SAN FERMINAK!!
T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus

erran.
EUS



AROZTEGIA MAKINA ERREMINTA ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, ateak, hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

www.talleresjoisa.com ONGI PASA BESTAK!

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com



Pinpirin

PELUQUERIA - ILEAPAINDEGIA

Besta onak posa itzazve!!

Plaza Zaharra, 26 • Lesaka
T. 948 63 80 37



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKOTXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA



Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052

Faxa: 948 627 578

Otsango Ind. 28 • LESAKA

info@transtxakain.com



- Estetika
- Hialuronikoa
- Protesiak
- Endodontziak
- Inplanteak
- Hortz zuritzeak
- ...



Betiko lekuan eta betiko moduan
jarraitzen dugu,

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

948637282/
943623997

Antoiu kalea, 7, Lesaka
Aldapeta kalea, 2, 2.B, Irun

«Sanferminetan ez ezik lehen urte osoan antolatzen genituen ekitaldiak besta egiteko»

KALAXKA PEÑA

50 urte beteko ditu sanferminetan



Duela 50 urte, 1973ko sanferminetan atera zen lehen aldiz Kalaxka peña. Ordurako, Basurde, Agiña, Egurra eta, urtebete lehenagotik, Irrintzi peña ateratzen ziren. 50. urteurrena modu berezian ospatuko dute, bai sanferminetan, baina baita urte osoan egiten ari diren ekitaldien bidez ere. Kalaxkaren historiaren berri eman digute Kotte lantzi, Joxe Antoni Ubiria eta Mari Carmen Igarzabal beteranok eta gaur egungo egoeraren eta antolatutako ekitaldien berri Amaia Telletxeak, mende erdia bete duen peñaren belaunaldi berrien ordezkari.

Goitian ageri den argazkia da lehenbizikoa, historikoa, 1973koa. «San Fermin eguneko arratsaldean atera ginen. Orduan ez zen peñen eguna izaten, egunero zen peña eguna eta egunero ateratzen ginen blusarekin eta zurrakapotearekin. Edozein tenoretan jotzen genuen tanborrada, egunero, ez zen programaren beharrik. Mari Carmen Igarzabal eta bere lehengusina, Belen Elizalde, genituen soinuariak. Irrintzikoek bazuten bere astoa, Sabina, eta guk ere bagenuen gurea, Romeo. Esposatu ziren», dio Ubiriak. Izan ere, Irrintzikoekin «beti pike

sanoa» izan dutela onartzen du Kotte lantzik. «Beti irabazten zigutela erraten zuten, futboleko irabazten ziguten... behin, zerbaitetan irabazteko, karrera ziklista antolatu genuen, baina hura ere galdu genuen: lehenbiziko kurban, Julian Pilloti, erori egin zen. Nire anaia—Irrintziko bera—oroitzen da behin irabazi genitela bazkariren bat. Besta egiten bakarrik irabazten genien» erran digu Ubiriak. «Beraiek beti formalagoak izan dira—aipatu digu Kottek—. Ongi jantziak ateratzen ziren, astoa inpekable ateratzen zuten, bere galtza txuri eta blusarekin... Guk astoa igual kautzuekin ateratzen genuen, manta bat gainean, boltsa buruan...», desastre hutsa ginen».

Himnoa ere

Mari Carmen Igarzabalek himnoa ere bazutela gogoan du: «Pepito lantzik peña guztiei egin zien, Basurderi, Egurrari, Irrintziri eta guri, bere begitako ikasleak ginenez, 'Lesakari' eman zigun, kuadrillan jotzeko, eta gero, aparte, Kalaxkak ere badu bere himnoa».

Baina Kalaxkaren lanak ez ziren sanferminetara mugatzen: «Madalenetan Albisturko bestak

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 - LESAKA
(josasun-zentroaren parean)
BESTETAKO ORDUTEGIA
08:30-13:00



- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBEN EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ITURBENA **ONGI PASA BESTAK**
kafetegia



Koskontako bidea 5, behea - LESAKA


TALLERES FRAÍN

LESAKA- Tel.: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

Antoiu
OSTATUA

Golizeko 6etatik aitzinera idekia.

GOSARIAK
PINTXOAK
BOKATAK
ERRAZIOAK

ONGI PASA BESTAK!



Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

E D A R I A K

ONGI PASA BESTAK!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

DESIN  **ERA**

DESINSEKTAZIOAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 625 597
Zabain, 42 B • BERA


BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIANTZAT
ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

 **609 446 693 - 679 204 872**
 **nbidasoa@gmail.com**

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

 **Alkalaga Industrialdea**
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

 **Noain-Eskiroz Industrialdea**
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

ONGI PASA BESTAK!

Lesaka-Bera

AUTOESKOLA

Ongi pasa bestak!

Eztegara, 12 • BERA Iturrunzubiko plaza, 8 • LESAKA
948 630 652 948 637 870

MIKEL UBIRIA

eskabazioak
garraioak

ONGI PASA BESTAK!

Biurana 8 • 31770 Lesaka
948.637.302 619.716.322 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

ZOANSA



MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banarta, 2 • Alkaloaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

SAN FERMIN OSTATUA

Ongi pasa bestak!

Plater konbinatuak
Eguneko menua
Asteburuko menua



Beheko plaza, 9 Lesaka
948 62 75 12



INTZURI
optika

Bittiria 28, Lesaka
info@intzurioptika.com
948 627 550
@intzuri_optika

Ongi pasa bestak!

antolatzen genituen... danborrak edo blusak erosteko ez genuen sosarik izaten eta dirua lortzeko ekitaldiak antolatzen genituen: San Antonera ibilaldi arautua, nesken eta mutilen arteko futbol partidua... urteren batean, sanferminetako asteburuan, trafikoa arautzen eta kotxeak aparkatzen laguntzen ere aritu ginen, eta udalak aurreztu zuen diru horrekin txaranga ekartzea eskatu genuen». Lokala ere izan zuten, «Bordinea ondoan utzi zigun Joxean Lopezek... hura nolabait egokitu genuen eta soziedade bezala erabili genuen, afari-berenduren bat egiteko eta musika bukatzen zenean harat joateko».

Urte hasieratik ospatzen

Aurten ere, 50. urteurrena ez dute sanferminetan bakarrik ospatuko. «Urte hasieratik ari gara -dio Amaia



Telleteak-. Sevillatik Salamancara bizikletaz joan ginen peñakide batzuk, Izabara irteera egin dugu... Sanferminetan, bezperan gosaria izanen dugu Alondegiko arkupean, Peñen egunean, gosalduta, tanborradan atera, argazki ofiziala atera, bazkaldu... eta 10ean poteo musikatua eta herri bazkaria. Abuztu-irailan e-bikearekin tourra egin nahi dugu, urriari bodega eta abenduan Kalaxkako olentzeroa atera eta ohiko gala-afaria».



Domiko

calefacción sostenible

ESTUFAS ETA KALDERAK

Pellet eta egurrean espezializatuak



ONGI PASA BESTAK!

www.domikorenovables.com | 639 914 455

Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko



Ongi pasa bestak !!

Plaza Berria, 10
T. 948 637 335

Alnhoa
Altzuguren
Mitzelena

ongi
pasa
bestak!

Abokatutza orokorrean
Herentziak
Aldakatuak
Arazo
administratiboak

Zerbitzua euskaraz
ematen dut.
Deitu hitzordua
hartzeko.

Legia 42, BERA
M. 630 97 21 89
alnhoaalzuguren@gmail.com

muebles
ORDOKI
altzariak

Ongi pasa
Sanferminak!



📍 Bittiria, 18 | LESAKA

www.mueblesordoki.com
info@mueblesordoki.com

📞 948 638 076

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

ONIM
AGENTZIA

Ongi pasa
bestak!

AUTONOMO ETA ENPRESAK
LABORALA, FISKALA ETA KONTABILITATEA

PARTIKULARRAK
KONTRATU PRIBATUAK, MOTA GUZTETAKO EKSPURTAREN
TRAMITAZIOA, ERRENTA AITORTPEN...

IBILGAILUAK
TRANSFERENTZIAK, BAJAK, ALTAK,
TAKIGRAFO TXARTELAK...

ASEGURUAK

📍 BITTIRKO PLAZA 8, 31779 LESAKA
📞 948 637 359 | 488 645 581
📧 ONIM@ONIMAGENTZIA.COM

Baztanbemi plaza, 6 Ertegarra pasealekua, 22-1 Eliza Kalea, 22 Eltzeta, 20
31700 ELIZONDO 31780 BERA 31740 DONEZTEBE 31770 Lesaka
T. 948 581 300 - F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 - F. 948 451 304 T. 948 638 077

Panelak - Binoak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, binoak, olanak eta abar

PANELAK



INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin
edo gabe
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta
materialen aukerak



ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan



PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan



METALIZATU
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan


KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publikitatea

ROLL-UP



ROLL-UP
Garrailo poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta
kalitate aukerak

BINOLOAK



GAUZA GEHIAGO



INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 - LESAKA - Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus - www.kulturkari.com

Besta zorientsuak opa dizkizuegu
Lesakar guztiei!



TRANSPORTES
bidasoa

AENOR
ER
E-Net
AENOR
MUELLA DE
CALCULO
DEL CALCULO

2023

Zerbitzuaren fidagarritasuna · Flota handia eta modernoa
Soluzio logistikoak · 40 urte baino gehiago

ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU ZENTRALAK LESAKA

Alkalaga Ind. Ziobi - Lesaka (NAFARROA) · T. 948 637 901 · F. 948 637 927 · administración@transbidasoa.com

DELEGAZIOAK

BARTZELONA-Abreia · T. 93 779 89 79 · F. 93 773 99 70 · dircatalunya@transbidasoa.com | PONTEVEDRA-O Porriño · T. 986 342 887 · F. 986 342 899 · dirgalicia@transbidasoa.com
ZARAGOZA · T. 976 108 940 · F. 976 108 941 · dirzaragoza@transbidasoa.com | ARABA-Vitoria-Gasteiz · T. 945 290 660 · F. 945 290 747 · dmorte@transbidasoa.com
VALENTZIA-Moncada · T. 961 539 870 · F. 961 547 536 · dirvalencia@transbidasoa.com | SEVILLA-Dos Hermanas · T. 954 999 906 · F. 954 999 672 · dirsevilla@transbidasoa.com
GUADALAJARA-Azuqueca de Henares · T. 949 264 142 · F. 949 264 194 · dircentro@transbidasoa.com | BIZKAIA-Zerbitza · T. 944 935 657 · F. 944 616 875 · zerbitza@transbidasoa.com

Urumeako arauak errespetatzeko eskatu dute udalek

Urumea bailararen eta ibaiaren garapen iraunkorra bultzatzeko, hainbat jarduera aurreikusi dituzte Aranoko, Goizuetako, Hernaniko eta Ereñotzuko Auzo udalek eta Nafarroako Gobernuak



Ibilgailuak baimendutako aparkalekuetan bakarrik utzi daitezke.

TTIPI-TTAPA ARANO-GOIZUETA

Urumea bailararen eta ibaiaren inguruan elkarlanean segitzen dute Aranoko, Goizuetako, Hernaniko eta Ereñotzuko Auzo udalek eta Nafarroako Gobernuak. Eta udari begira, hainbat jarduera aurreikusi dituzte.

Alde batetik, aisialdi guneetan ingurune naturala errespetatzeko sentsibilizazio ekintzak egin ditzan, hezitzaile bat kontratatzea erabaki dute. Uztailetik irailera bitarte ariko da. Horrez gain, ibaiaren inguruko ondare naturalaren garrantzia aintzat hartzeko, sei panel interpretatibo jarriko dituzte. Bestalde, Ugaldetxoko aisialdi gunea irailaren 24ra arte izanen da erabilgarri, eta ibilgailuz joanez gero, Hernaniko Udalaren web gunean erreserba egin beharko da. Fagollaga (Hernani) eta Arranbide (Goizuetako) guneetan, berriz, hainbat lan egingen dituzte. Arranbiden, Añarbeko presako sarreran, degradatutako guneak hobetu eta ibilgailuen eragina gutxitzeko lanak egingen dituzte.

Arauak errespetatzeko ere eskatu dute: sua piztea edo barbako egitea debekatua dago, baita kanpatzea ere. Txakurrek ezin dute libre ibili eta hondakinak bildu eta eraman behar dira. Ezin da tresnarik garbitu ibaian, eta ibilgailuak baimendutako aparkalekuetan bakarrik utzi daitezke. Ingurune naturala errespetatu eta zaintzeko eskatu dute eta bizikidetzaren ordena publikoko arauak errespetatzeko. Aranoko Udalak, berriz, euriteek sortutako kalteak direla eta, udan hainbat obra egingen dituztela oroitarazi du.



Sinetsi berriro zure aurrezkietan. Eta hazaraz itzazu.

Nafarroako Rural Kutxa Gordailua

Epe finkorako gordailua, 18 hilabete ra, zure aurrezkiak gero eta gehiago saritzen dituena, %1,926ko UTB arekin, honela:

LEHEN SEIHILEKOA:	ITN % 1,50
BIGARREN SEIHILEKOA:	ITN % 1,75
HIRUGARREN SEIHILEKOA:	ITN % 2,50

Epea: 18 hilabete
Interesak sei hilean behin likidatuko dira
UTB % 1,926

www.cajaruraldenavarra.com

Proposamena 2023/12/31ra arte da baliagarria, 18 urteko edo gehiagoko pertsona fisikoentzat. Adibidea, 2023/05/01ean hasitako 100.000 euroko gordailu baterako: 2023/11/01ean 750 euroko interes gordinak likidatuko ditu, 2024/05/01ean 875 euroko interes gordinak, eta 2024/11/01ean 1.250 euroko interes gordinak gehi printzipalaren 100.000 euroak hartara, 2.875 euro gordineko interesak ondanduko ditu guztira. Komisia aldez aurreik itzazteagatik %1 da.

Gorritzarango Eguna ospatuko dute igandean

Aurten XXXVI. aldiz mus txapelketa jokatu dute eta XXXVII. aldiz txintxurrin txapelketa

TTIPI-TTAPA

Pestarako prest dira Gorritzarango auzotarrak eta helburu horrekin, egun osoko pesta antolatu dute igande honetarako, uztailaren 2rako. Goizeko mezarekin hasi, eta iluntzeko dantza lehiaketarekin borobilduko dute.

10:00etako mezaren ondoren, herri kirol saioa antolatu dute. Proba konbinatuak, aizkolarien saioa eta proba bereziak izanen dituzte, baita umeentzako jolasak ere. 14:00etan mahaia-aren bueltan bazkaltzeko bilduko dira. Helduentzako eta umeentzako menuak prestatu dituzte eta bazkarirako txartelak erosteko azken eguna asteazkena zen.

Arratsaldean gehiago

Gorritzarango Eguna bere ibilbidea duen seinale,

17:00etan XXXVI. mus txapelketa hasiko da. Parte hartzeko bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu. 18:00etan dantzaldia hasiko da eta 19:30ean egutegian ongi finkatua den beste hitzordu bat: txintxurrin txapelketa. Aurten XXXVII. edizioa beteko du.

20:00etan zozketekin hasiko dira, eta urtero bezala, ez dituzte nolanhiko opariak prestatu: astebeteko bidaia Kanarietara, bodega batean egondia, herriko dendetan gastatzeko opari txartelak, otorduak eta bestelako hainbat opari. Sarituek unean bertan aurkeztu beharko dute txartela.

Zozketen ondoren, txokolatea banatuko dute eta dantza lehiaketa hasiko da. Horrez gain, egun osoan ez da musika faltako; trikitilariak arduratuko dira horretaz.



Zabaletak makila Anauti eman zion momentua. UTZITAKO ARGAZKIA

David Anautek hartu du ondoko lau urtetarako aginte makila

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 17az geroztik David Anaut Peña da alkate. Egun horretan hartu zuen azken zortzi urteotan alkate izan den Mikel Zabaletaren eskuetatik aginte makila eta «herritarrekin eta eragileekin batera herria egiten jarraituko» dutela nabarmendu zuen. Zinegotziek ere egun horretan hartu zuten kargua. EH Bilduko Maider Amantegi Urdalletak, Xabier Gartzia Azpirotzek, Itxaro Zabaleta Telleriak, Bittorio Lizarraga Lazkanok, Aintzane Arraiza Begiristainek, Iñaki Zabalo Beteluk, Xabat Illarregi Marzolek



Kargua hartzeko ekitaldian. EH BILDU

eta Mikel Zabaleta Aramendiak eta UPNko Silvestre Zubitur Goñiketa Fermin Azpirotz Martinikorenak. Bestalde, agintaldia bukatu berri duten EH Bilduko hautetsiei eta haien etxekoiei omenaldia egin zieten.



DAVID DELGADOK UTZITAKOIA

Belar artifiziala eskatu dute Aurrerakoek

Denboraldi amaierako festa ospatu zuten Aurrera elkarteko futbolariak ekainaren 17an. Ospakizunarekin batera, Arkiskil futbol zelaian belar artifiziala jartzeko eskaera ere egin zuten 200 futbolari baino gehiagok. Leitzako plazan egin zuten elkarretaratzea, *Leitzak, futbol zelai artifiziala eskatzen du!* zioen pankartarekin.

18. urteurrenerako prestatzen hasi da gaztetxea

Urteurreneko pesta handia uztailearen 22an egingen du, egun osoko egitarauarekin

TTIPI-TTAPA

Hemezortzigarrenean bidean da Atekabeltz Gaztetxea, eta urteurrena, ohi bezala, pesta giroan ospatu nahi dute. Uztailearen 20an hasiko dira ospakizunekin, eta *Zorionak Ateka!* lelopean afari autogestionatua antolatu dute, 21:00etan.

Uztailearen 22an urteurren pesta

Hitzordu nagusia uztailearen 22rako utzi dute. 10:30ean txupinazoa botako dute eta 11:00etan paella lehiaketa hasiko da. 14:30ean bazkaltzeko bilduko dira eta aldi berean, bingotzat musikatua egingen dute. 19:00etan kubatar musika entzuteko aukera izanen da D'Caprichorekin, eta mojitada ere antolatu dute. 21:30ean afari-merienda egiteko geldituko dira eta gauean kontzertuekin borobilduko dute eguna.

22:30etik aurrera Zinez, Burutik eta Irain taldeek hartuko dute lekukoa.

Paella lehiaketarako izen ematea

Paella lehiaketan apuntatu nahi duenak Torrean dagoen zerrendan eman beharko du izena, eta bost euro ordaindu beharko ditu. Antolatzaileek sua, olio eta gatza jarriko dituzte eta ontziak eta beste osagaiak talde bakoitzak eraman beharko ditu. Bazkaltzeko, lehiaketako paellaz gain, entsalada eta postrea jarriko ditu gazte asanbladak.

Film labur txapelketa

Film labur txapelketa ere martxan du Atekabeltz gaztetxeak. Ekainaren 26an bukatzeko zen lanak aurkezteko epea, eta uztailearen 28an pantailaratuko dituzte, 22:30ean.



JUAN MARI BARRIOLA.

Jendetza Sagardo Egunean

Alke kultur taldearen eskutik, Sagardo Egunean XIII. edizioa egin zuten ekainaren 10ean eta jendetza bildu zen Euskal Herriko hamabost sagardogileren uzta probatzera. Antolatzaileen arabera, 622 edalontzi erabili zituzten eta 900ndik gora botila edan zituzten. Pintxoak jateko aukera ere izan zen.



Klaudio, Ugartemendia, Martinez, Zabaleta eta Zabaleta. Lizarraga falta da.

Herriko gazteak Uxue Trail mendi lasterketa solidarioan

I. ZABALETA

Pasa den ekainaren 18an, herriko hainbat gazte Uxue Trail mendi lasterketa solidarioan izan ziren. Zehazki, Patxi Klaudio, Omar Ugartemendia, Mikel Martinez, Itxaro Zabaleta, Uxue Zabaleta eta Julen Lizarragak parte hartu zuten lasterketan. Phelan-McDermid Sin-

dromea ezagutarazteko eta honen ikerkuntza bultzatzeko antolatzen dute. Phelan-McDermid sindromea, edo 22q13 kromosomaren gabetzea, gaitasun arrarotzat hartzen den baldintza genetiko da. Kasu gehienetan 22. kromosomaren mutur terminalaren material genetiko gabetzea eragiten du.

Literatura Unibertsala Itzulpen Saria Uharterentzat

EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak Literatura Unibertsala bilduma osatzeko itzulpen lehiaketa antolatu du aurten ere, eta epaimahaiak Aroa Uharte Zubillagaren lana hautatu du Dostoievskiren *Krimena eta Zigorra* lana euskaratzeko.



Aroa Uharte Zubillaga.

Kaxkabeltzaren bizikleta Sagrario Sukuntzarentzat

Maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitarte Kaxkabeltza elkarreko komertzioetan erosketak egin zituzten artean, hainbat sari banatu zituen elkarrekin. Sari horietako bat bizikleta bat izan zen, eta Sagrario Sukuntza izan zen irabazlea. Zorionak!



Sagrario Sukuntza bizikletarekin.



Alkatea –aginte makilarekin– eta zinegotziak kargua hartzeko ekitaldian. F. LOIARTE

Bigarren agintaldia hasi du Unai Mirandak

Maialen Uitz, Uxuri Perurena, Igor Elizegi, Mertxe Uitz, Eider Zugarramurdi eta Olatz Zubirik zinegotzi kargua hartu dute

TTIPI-TTAPA

Ikusmina piztu zuen ekainaren 17ko kargua hartzeko ekitaldiak. Eta hala, jende askoren aurrean, berrartu zuen alkate kargua Unai Miranda Berroetak. Hitzorduan, eskerrak eman nahi izan zizkien familiari, azken agintaldian ondoan izan zituen taldekideei, udal lan-

gileei eta maiatzaren 28ko hauteskundeetan EHBilduren aldeko botoa eman zuten herritar guztiei. Ekitaldian Maialen Uitz, Uitzik, Uxuri Perurena Perurenak, Igor Elizegi Erbitik, Mertxe Uitz Antonek, Eider Zugarramurdi Osak eta Olatz Zubiri Goizuetak zinegotzi kargua hartu zuten.



FELIX LOIARTE

Musika eskolako saioa

Musika tresnekin eta kantari, beraien abilitadeak erakutsi zituzten ekainaren 9an neska-mutikoek. Aralar Musika Eskolan gitarra, pianoa, trikitixa eta saxofoia ikasten ari diren gaztetxoek herritarren aurrean erakutsi zuten ikasturtean ikasitakoa.



TESTUA: ESTEBAN AROTZENA. ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatzaren harrobia

Umore Ona Abesbatzak ikasturte bukaera ospatzearekin batera, 6 eta 12 urte bitarteko 17 neska-mutikok osatzen duten koroak bere aurkezpena egin zuen ekainaren 11n. Kalitatez, emozioz eta ustekabez betetako kontzertua izan zen, plazan elkartutako herritarrek ez baitzuten hainbeste mailako saiorik espero.

Auzolanaren balioa agerian

Zubi hau eraiki berri du auzolanean herritar talde batek. Berez paregabea den ingurua are gehiago apaintzeaz gain, herritarrek eta turistek asko erabiltzen duten Kaskada izeneko bainulekuko bidea erraztu du.



ESTEBAN AROTZENA



UMORE ONA ELKARTEA

Umore Onaren hirugarren pala txapelketa

Ekainaren 19an jokatu zituzten Umore Onaren pala txapelketako finalak. Emakumezkoetan, Gorane Zabala eta Leire Iribarren nagusitu ziren eta gizonezkoetan, Martin Etxeberria eta Xabier Zugarramurdi. Bestalde, Gazte Eguneako pilota txapelketan apuntatzeko epea uztaillaren 10ean bukatuko da.



lazko sanpedroetan etxez etxe ibili ziren gazteak. UTZITAKOA

Sanpedroetako ospakizunak ate joka

Ostiralean eta larunbatean hainbat ekitaldi antolatu dituzte Lagunartekoek

ENERITZ IRAOLA

Asteburu honetan ere festa giroa izango da herrian. Lagunartekoek, sanpedroen aitzakian, ekainaren 30erako eta uztailaren 1erako egin dute proposamena. Ostiralean, 17:30ean, meza izango da eta irteeran merienda eskainiko dute. Gero, 18:30 aldera, herriko eskea egingo dute Lagunartekoek eta gauean Lagunartekoen afaria izango da.

Egun osoko festa

Larunbatean herritar guztiak izango dira festaren parte. Goizean elkartean gosalduta

indarrak hartu eta, baserrietarako bidea egingo dute gazteek. Ateak zabalik esperoan egongo dira bizilagunak jan-edanak eskaini eta trukean kantu, dantza eta kontuak jasotzeko. 18:30ean sagardo dastaketa antolatu dute plazan. Lau euro ordaindu beharko da edalontzia eta nahi adina edateko aukera izango da.

Gauean, 21:00etan, herri afaria izango da Pake Toki elkartean. Menua: sarrerakoak, entsalada, oilaskoa patatekin, postrea, kafea eta kopa. Afarirako txartelak Sastinean izan dira salgai ekainaren 26ra arte.

Kirol udalekuak eskainiko dituzte uztailaren 24tik abuztuaren 4ra

E. IRAOLA

Kirol Mankomunitateak udako eskaintzaren berri eman du. Bi astez eta egunean hiru orduz kirol udalekuak izango dituzte haur eta gaztetxoek; zehazki, uztailaren 24tik abuztuaren 4ra, 10:00etatik 13:00etara. Kirola oinarri hartu dute, baina ongi

pasatzeko hainbat proposamen bildu dituzte: natur jarduerak, irteerak, herri kirolak, ginkana, jolasak, akrosport... Izen ematea ekainaren 30a baino lehen egin behar da udaletxean edo Kirol Mankomunitatera idatziz (kirolmankomunitatea@gmail.com) edo 649 2053 10era deituz.



OLAIA MANGADO

Eskolako lagunak Donostian

Nazabal eskolako ikasleak eta irakasleak Donostian izan ziren ekainaren 20an. Aquariuma bisitatu eta hondartzan ere ibili ziren eta bazkalondoan bueltatu ziren. Huraxe izan zen udako oporrak hartu aurretik neska-mutikoez egin zuten azken irteera.



Apustuaren aitzakian giro ederra sortu zen herrian. UTZITAKO ARGAZKIA

Etxaideren eta Baraibarren arteko apustua

E. IRAOLA

Mahaiaren bueltan, lagunarte ederrean, kitatu zituzten zorrak ekainaren 11n Imanolek eta Aingeruk. Aurretik, T2T Mendi Lasterketan parte hartu eta 24,5 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten. Lagunen eta herritarren animorik ez zitzaien

falta izan. Ordubeteko aldea atera behar zion helmugan Imanolek Aingeruri, baina honek 40 minutuko tartean sartzea lortu zuen. Apustua Aingeruk irabazi arren, gus-tura zegoen Imanol ere, apustuaren aitzakian kuadrillakoa korrika egiten hastea lortu duelako.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material erabat pertsonalizatuta



Elkarteko kideak ekainaren 16an Arizkunenean egindako aurkezpenan, kartelaren sortzailearekin eta abestiaren musikariekin batera. JUAN MARI ONDIKOL

«Antolakuntzaren lekukoa hartzeko unea ailegatu zaigu»

OLATZ ITURRALDE ARRETxea BAZTANDARREN BILTZARRA ELKARTEA

Baztandarren Biltzarrak 60. urteurrena ospatuko du uztailaren 16an, eta talde aldaketa tarteko, prestaketetan buru-belarri ari da elkarte berria

R. OSKARIZ

Baztandarren Biltzarra elkarteak bestako antolakuntzaren ardura utziko zuela jakinarazi zuen urte hasmentan. Belaunaldi errelebo baten ezean, kolokan egon zen aurtengo ospakizuna. Baina hainbat gazte bildu dira lekukoa hartzeko, eta buru-belarri ari dira lanean 60. Baztandarren Biltzarra arrakastatsua izan dadin. Tartean dago Olatz Iturralde Arretxea (Zozia, 2004).

Zer da zuretzako Baztandarren Biltzarra?

Sentimendu haundiz bizi den besta da. Etxean betitik transmititu didate hori eta nik ere horrela bizitzen dut. Besta

hunkigarria da baztandar-rondako, arras egun polita. **Nola erabaki zenuen elkartearen sartzeara?**

Egia erran, nik, bertze hainbat kiderekin batera, lehenagotik taldean sartzeko intentzioa nuen, lehenago edo beranduago lekukoa hartzeko unea ailegatuko zela ikusi genuelako. Hala ere, elkarteak antolakuntza utziko zuela errateak bulkaldi

«JENDE PILA BAT BILDU GARA ETA SORPRESA HAUNDIA IZAN DA»

bat eman zion herriari, jendea taldean sartzeko eta hainbartzte maite dugun besta hau bizirik mantentzeko balio izan duena.

Gazte kuadrilla ederra bildu zarete...

Bai, sorpresa handia izan zen. Lehenbiziko bileraren aitzinetik ez genekien zenbat izanen ginen, uste genuen lau katu izanen ginela eta aurtan ez zela bestarik izanen,

«60. URTEURRENAK PRESIO GEHIAGO DAKAR, BAINA MOTIBAZIOA ERE»

baina jende pila bat etorri zen eta arras sorpresa ona izan zen. Orain 22 bat lagun gara taldean, 16 eta 30 urte artekoak eta Baztango herri guzietakoak.

Lehenagoko antolatzaileen laguntza ere baduzue, ezta?

Bai, hasmentatik argi utzi zuten gu izanen ginela antolatzaile nagusiak baina haiek hor egonen zirela edozertan laguntzeko. Guretzako lehenbiziko aldia da besta antolatzen, eta dena ongi bideratzeko haien esku-hartzea beharrezkoa da.

Noiz hasi zineten prestaketa lanekin?

Lehenbiziko bilera urtarril inguruan egin genuen, eta komisiotan banatu ginenez, gero komisioko bakoitza lehenago edo mantsoago hasi zen lanean. Tonbola komisioko adibidez, martxoan inguruan hasi zen, baina denboraz nahiko justu ibili dira. Bertze komisioko batzuk beranduago hasi gara lanean.

Zenbat komisiotan banatu duzue lana?

Bortz komisioko gara: ostatua, sukaldea, desfilea, serigrafia eta tonbola. Jende andana bagara taldean eta ongi moldatzen gara, ikaragarritzko motibazioa dugu.

Kanpoko laguntza ere beharrezkoa izanen duzue, ez? Herriarrak, komertzioak...

Dudarik gabe. Egun hau aitzinerat ateratzeko 20 lagunek lan egitea ez da nahikoa. Jende aunitzek bete beharreko ardurak daude; ostatuko txandak, aitzineko egunean dena muntatzea, sukaldean lan egitea... eta horretarako herritarren erantzuna beharrezkoa da.

Zertan behar izaten da laguntza gehien?

Ostatuan eta sukaldean erranen nuke; lehenagotik dena muntatzen, mahaia paratzen, piperrak moztzen... eta egunean bertan ere zerbitzatzeko edo sukaldeko arduradun gisa, adibidez.

Honez gain, urte berezia izanen da aurtengoa; Baztandarren Biltzarrak 60 urte beteko ditu. Honek lan gehiago inplikatzeko du?

Lana baino, presio gehiago daukagula uste dut. 60. ur-



Olatz Iturralde berroetarra taldean sartu da aurten. UTZITAKOA

teurrena izanik dena borobil ateratzea nahi dugu, eta gure lehenbiziko urtea izanda, oraindik ere presio gehiago dugu. Baina motibazioa handia ere bada.

Zer espero duzu aurtengo bes-tatik?

Nik espero dudana da besta aitzinerat ateratzea, herriaren aldetik erantzun ona izatea laguntzerako orduan eta egun polita izatea, inongo eraso eta zapalkuntzarik gabe.

Heldu den urtean antolakuntzan segitzeko asmoa duzue?

Bai, oraingoz bederen ez gara aspertu! Talde polita osatu dugu eta segitzeko asmoa dugu.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Jendea Baztandarren Biltzarren egunean Elizondora hurbiltzera animatu nahi dut, eta baita elkarteetan sartzera ere, azken urtean pasatutakoa berriz ere ez errepikatzeke.

Antolakuntzan laguntzeko deia

Bi aste bertzerik ez dira falta aurtengo ospakizuneko, eta elkarteak antolakuntzan laguntzeko deia luzatu die bertze behin herritarrei. Joan den urtean bezala, galdetegia zabaldu dute sareetan, eta ortziralde hau, ekainaren 30a, izanen da izena emateko azken eguna.

Ospakizunean bertan zein aitzineko egunetako lanekin laguntzeko aukera eman dute: platerak garbitzen, kartelak zabaltzen, bazkarian zerbitzatzeko, ostatua, eszenatokia, mahaia eta aparkalekua muntatzen, janaria moztzen eta prestatzen, desfilean edariak eta idatziak banatzen, materiala zaintzen... eta bestaren hurrengo egunean desmuntatzen eta garbitzen.

Taldeak adierazi duenez, «zuen laguntzarik gabe ezinezkoa da besta aitzinerat ateratzea eta laguntza ttikiena ere ongi etorria izanen da».

Gaurko hazia, etziko bizia

Baztandarren Biltzarrak 60 urte bete ditu aurten. 1963an zenbait baztandarrek Aralerara egindako ateraldi batean sortu zen ospakizunaren ideia, eta, oztopoak oztopo, ia urtero egin izan da.

Horregatik, *Gaurko hazia, etziko bizia* izan da aukeratuak leloa; «duela sei hamarraldi ereindako hazitik landare eder bat sortu da, landare emankorra, edozein lurzorutan, edozein eguraldirekin ere, urtero-urtero loratuko dena».

Urtero bezala, aurtengo kartela ere aurkeztu du taldeak. Pello Fagoaga erratuzarra izan da sortzailea, eta tradizioa eta modernitatea uztartu nahi izan ditu diseinuan, «garai zahar eta berrien arteko lotura irudikatuz».

Kanta eta bideoklipa

Kartela ez ezik, urteurrena ospatzeko kanta sortu dute, baita bideoklipa ere. Ion Mayordomo musikari elizondorarrak sortu du abestia eta Hasier Larretxea poeta arraioztarrak paratu dizkio hitzak.

Mayordomoren eta Kattalin Arizmendiren ahotsekin batera, hainbat musikaririk parte hartu dute: Josu Erbiti perkusioan, Jokin Barriola baxuan, Ion Mayordomo gitarra, Asier Capon akordeoian, Hasier Azurmendi tronpetan eta Pello Etxebeste tronboian.


Bideoklipa Elizondon eta Gartzainen grabatu dute. Diego Azanzak zuzendua, Asier Burguete, Jon Zubiaga, Oinat Razkin, Urko Lopez, Mariano Iribarren, Ixabel Aleman eta Jone Larralde aktoreek parte hartu dute.



Kartelaren eta kantaren sortzaileak aurkezpenean. ONDIKOL



Udala osatuko duten hamahiru zinegotziak, alkatea erdian dutela. ONDIKOL



Anbustegi aginte makila hartzean.



Ariztegiko bestak. ARTXIBOTIK

Fernando Anbustegi da Baztango alkatea agintaldi honetarako

Azken zortzi urteetan alkate izan den Joseba Otondoren eskutik hartu du aginte-makila

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 17an alkateak eta zinegotziak izendatu zituzten herrietan. Baztanen EH Bildu izan zen indarririk bozkatuena eta sei zinegotzi lortu zituen. Gainera, Zurekin Baztan taldearen hiru bozak ere izan zituen eta EH Bilduko Fernando Anbustegi izanen da alkate datozen lau urteetan. Bertze lau bozak (Baztango Independentek taldearen bi eta UPN eta Geroa Bairen bana), zuriak izan ziren. Azken zortzi urteetan alkate izan den Joseba Otondoren eskutik hartu zuen aginte-makila Anbustegik.

Kargua hartzeko solasaldian, Erdizi erreferentzia eginez, «gure aita eta amen lurra defendatuko» duela adierazi zuen Fernando Anbustegik eta Mariano Izetak idatzi zuen bezala, kasu honetan ere dirua galgarri izan zitekeela azpimarratu zuen.

Baztandarrei eskerrak eman zizkien eta falta direnak gogoan izan zituen, Jon Barberena bereziki. Duela hogeita urte Barberenak idatzitakoa gogoan izan zuen: «15 mallo, 15 hots, 15 algara, Almandoztik Amaiurret bat gara».

Oposizioan «eraginkortasunez eta arduraz»

Baztango Independentek taldeak udal gobernuan izateko bilerak egin dituela baina ez dutela emaitzarik lortu adierazi du. «Alde batetik Bildurekin bilera informal bat izan dugu, eta, bertzetik, Zurekin Baztanekin ere bildu gara. Bi taldeek ez zuten berriz eseri izan nahi agintaldi honetarako gaietan sakontzeko eta akordioak lortzeko».

Baztango Independenteen erranetan, «Zurekin Baztan alternatiba gisa aurkeztu zen kanpaina eta botoak eskaini arren Baztango alkatetzarako hautagai izateari uko egin diote». Honela, oposizioan izanen direla adierazi dute, «datozen lau urteetan eraginkortasunez eta arduraz lan eginez».

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete «botoaren bidez konfiantza eman ziguten baztandarrei, baita hauteskondeen ondotik euren maitasuna eta animoak helarazi zizkigutenei».

Gartzaingo Ariztegi auzoko bestak ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Gartzaingo Ariztegi auzoko bestak ospatuko dituzte aste-buru honetan.

Ekainak 30, ortziralea

Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. 17:00etan haur jokoak izanen dira eta 19:00etan auzari buelta emanen diote gaiteroekin eta erraldoiekin batera.

Uztailak 1, larunbata

Goizean txupinazoa izanen dute eta 09:30ean gosaria egingen dute. 14:30ean, berriz, zikiro jatea izanen da eta ondotik dantzaldia egingen dute Kapitan General DJaren eskutik. Iluntzean zinger eta ziztor jatea izanen da eta goizaldera emanen diete akabaila beste.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kantfonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

ORBEA

PINARELLO

moustache

MOOTV

BERGAMONT

BH

LAPIERRE

MERIDA

JOSEPHINE'S

20 ★ 13

ENGLISH

BAZTAN

📍 Pedro Avilator kanika, 2 Elizondo

BERTAKO IRAKASLEA

Matrikula irekita abuztuaren 31ra arte

Lehen hezkuntza DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen

☎ 637 176 572

✉ josephinesenglish@gmail.com



Giro ederra izanen dute sanferminetan herrian. ARTXIBOTIK

Azpilkuetako bestak ospatuko dituzte uztailaren 5etik 8ra

Herriko gazteek egitarau zabala prestatu dute Azpilkuetan San Ferminak ospatzeko

TTIPI-TTAPA

Uztailak 5, asteazkena

18:30ean txupinazioa eta 19:00etan frontenis txapelketako finala. 21:00etan ezkila jotzea eta 21:30ean baztan zopak. Ondotik gaupasa Beñat akordeoilariarekin.

Uztailak 6, ortzeguna

14:00etan gazte bazkaria, ondotik jokoak. 16:30ean herrikoen herri kirol desafioa eta 18:00etan Baztango eta herriko haurren pilota partida. 19:00etan kantaldia Bergararekin eta 21:30ean tortillada.

Uztailak 7, ortziralea

10:00etan kalejira herriko haurren eskutik eta 10:45ean meza nagusia. 11:30etik aitzinera puzgarriak izanen dira eta 12:00etan luntxa herriko elkarteetan. 16:30ean mus txapelketa eta 17:00etan txokolatada. 19:00etan buruhaundiak izanen dira.

Uztailak 8, larunbata

08:00etan su piztea eta 09:00etan gosaria. 14:30ean zikiro jatea Joxe Angel akordeoilariarekin. 21:00etan afaraia eta 00:00etan DJ Txomin. Ondotik Gaixoa ni.



GARBIÑE AGERRE ETA JUAN MARI ONDIKOL

Giro ezin hobea Almandozko bestetan

Aurten ere bestak arras ongi igaro dituzte; otorduetan jende aunitz elkartu da, giro polita jarritz. Dantzaldietan ere inguruko gazte aunitz hurbildu dira, herria alaituz. Bertzalde, eguraldiak egun berezi hauek ederragoak egin ditu. Ttiki, gazte nahiz heldu izan, denek eduki dute gozatzeko aukera.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
BERRIKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Gobernuak foru interesekotzat jo du Erdizko proiektua

Erdiz Bizirik plataformak meategiaren kontrako konpromisoa mahagaineratzeko eskatu die EH Bilduri eta Zurekin Nafarroari

TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik plataformak salatu duenez, «bartzandarrok gure jarrera garbi erakutsi dugu, baina bertze behin, Nafarroako Gobernuak ez entzunarena egin du». Izan ere, gobernuak foru interesekotzat jo du Magnesitas Navarrasen proiektua, «enpresak erran duelakoz mantenduko eta sustatuko dituela landa eremuko lanpostuak, ingurumen ikuspegiko ekonomia garapena eta kohesio territoriala».

Honen aitzinean, hainbat galdera planteatu dituzte: «Zein lanpostu sustatuko dituzte proiektuak? Nola lagunduko die meategi batek abeltzaintza ogibide duten eta azienda Erdizera eramaten duten 80 nekazal etxeei? Zein ingurumen ikuspegi garatzen lagundu dezake Nafarroako enpresa kutsakorrenetako batek? Nola garatuko da ekonomia Baztango nahiz Nafarroako lehenbiziko sektorearendako estrategikoa den eremu bat suntsitzen bada? Zein kohesio territorial sus-

tatuko du multinazional baten mesedetara bizitzeak?».

Taldearendako «oinarrizkoak» diren galdera horien inguruan hausnartu behar-rean, «Nafarroako Gobernuak alfonbra gorria jarri dio inongo sinesgarritasun sozialik ez duen proiektu bati». Hortaz, «hurrengo gobernu eraketara begira eskaera bat zuzendu nahi diegu EH Bildu nahiz Zurekin Nafarroa alderdiei: Erdizko meategi proiektuaren eta antzeko makroproiektuen kontra lerrokatu izan dira publikoki, orain gaiarekiko duten konpromisoa mahagaineratu dezatela nahi dugu».

Horrez gain, UGPS bezalako tresna juridikoak «herri-tarron hitzaren gaintik inposizioarako ez erabiltzea» eskatu dute, «ez Erdizen ez inon».

«GOBERNUAK ALFONBRA GORRIA JARRI DIO PROIEKTUARI»



Plataformak apirillean Iruñean deitutako manifestazioa. TTIPI-TTAPA

«Hamar herritarretatik zortzik meategi proiektuaren kontra dauden alderdiei bozkatu diete»

Erdiz Bizirik udal hauteskundeetara aurkeztu diren bartz alderdiekin bildu da, Erdizko meategi proiektuarekiko duten jarrera zein den jakiteko. Bi galdera planteatu zizkien taldeei:

- Erdizko meategi proiektuaren alde ala kontra zaudete?
- Udal gobernuan nahiz oposizioan egon, proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztuta konprometitzen zarete?

Alderdien erantzunak taula batean bildu dituzte.

	Alde/kontra	Alegazioak bai/ez
EH Bildu	Kontra	Bai
Geroa Bai	Ez dute erantzun	Ez dute erantzun
Independenteak	Kontra	Bai
UPN	Alde	Ez
Zurekin Baztan	Ez da posizionatu	Bai

UPNk proiektuaren alde eginen du, betiere legala baldin bada eta Zurekin Baztan kontra agertuko da UGEP gisa tramitatzen bada. Emaitzak alderatuta, honela ondorioztatu du plataformak: «bartzandarren gehiengoa meategiaren kontra dago; proiektua UGEP gisa tramitatuko balitz, hamarretatik zortzik proiektuaren kontrako iritzia duten eta kontrako alegazioak aurkeztuko dituzten alderdiei bozkatu diete. Proiektuaren alde diren taldeak gehien galdu dutenak dira».

EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA

Proiektu, baimen eta diru laguntzen gestioa

Amortizazio planen azterketa

ELEK BERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

Haziak kontserbatzeko ikastaroa Iruritan

Tailerrari segida emateko irailean kide baten baratzera antolatuko da bisita, hazien elkartrukeari jarraipena emanez

BAZTANGO TALDE EKOSOZIALA

Baztan-Bidasoko Hazien Sareak eta Baztango Talde Ekosozialak antolatua, *Baztan-Bidasoaldeko Haziak, nola kontserbatu* tailerra egin zuten Iruritan Gizarte Bilgunean. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako 14 bat pertsona bildu ziren.

Nafarroako Hazien Sareko kide den Elena Saucak azaldu zuen ingurura egokitzen diren haziak gorde eta erabiltzearen garrantzia, Narbarteko tomateei aipu eginez. Gure nekazariak belaunaldiz belaunaldi gorde izan dituzte ezaugarri jakin batzuk dituzten haziak, ekoizpen on bat ematen zutelako, zapoeragatik edo landatzeko modura egokitzen zirelako. Honela mantendu izan da hazien inguruko maneia, baina baita ere bioaniztasuna. Bertako hazi barrietate lortzen dugu leku batean 40-50 urtez hazi hori ere bada.

Kontserbatzearen garrantzia jabetuta, hurrengo solasak landareen botanikarekin lotutakoak izan ziren, hots ugaltzeko eraz.

Bestetik, haziak eguraldi lehorrekin eta ihintza baporatu denean biltzeaz eta izurriteak ekiditeko lore banden garrantzia aritu zen. Azkenik, bildutako haziak kontserbatzeko moduak azaldu zituen, tartean dagoeneko gordeta dauden hazien hozitzeko gaitasuna frogatzeko modua erakutsiz. Saioa bertaratu zirenen hazien elkartruke batekin akitu zen.

Ingurura egokitu diren hazien ezagutza biltzeko eta erabilerara sustatzeko hainbat lan burutu dituzte Nafarroako hazien sareko kideek, Pirinioetan, Lizarraldean, Sakanan... Gurean, orain dela 10 bat urte Baztan-Bidasoko hainbat kide hazien banku bat sortu zuten. Urte batzuetan haziak loaldian egon ondoren, berriz hozitu dira eta hortaz talde bat osatu da, Baztan-Bidasoko Hazien Sarea, Baztango talde Ekosozialarekin batera helburua duena ingurura egokitu diren haziak gorde, zaindu, erabili eta elkartrukatzea, bioaniztasuna, biokultura eta bertako ezagutza suspertuz.



Eskualdeko 14 bat lagun bildu ziren ikastaroan. BAZTANGO TALDE EKOSOZIALA



UTZITAKOA

Lehen jaunartzeak Berroetan

Ekain hasmentan izan zuten zer ospatu Berroetan; Aieko eta Eider Migueltorena Arretxea anai-arrebek lehen jaunartzea egin zuten. Egun polita izan zen eta herritar, lagun eta familiarekin ospatzeko aukera izan zuten. Zorionak bikote!

FANTXiKE
www.fantxiike.com

BAZTANDARREN BILTZARRA
GAINEAN DUGUI

GU PREST GAUDE... ETA ZU?

ONGI PASA BESTAKI!



BRIKO
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Baztango jauregi zaharrena da Iruritako Dorrea. IRURITAKO HERRIA

Iruritako Dorrearen aurkezpena egin dute

Bisita gidatuak eta hemengo produktuen dastaketak eginen dituzte bertan irailera arte

TTIPI-TTAPA

Zaharberitze lanetan aritu ondotik, Iruritako Herriak Dorrearen aurkezpena egin zuen ekainaren 23an, Elizondoko Koro Ttikiren eta Iruritako Fanfarrearen parte hartzearekin.

Dorrea (Jauregizarrea) Baztango jauregi zaharrena da, bertan Baztango jauntxoak eta Jauregizar familia bizi izan ziren. Iruritarrek azaldu dutenez, «kontuan izanda Baztango historian eta arkitekturan daukan garrantzia, bailarako historia, natura, kultura eta ondare etnografikoa ikertzeko,

gordetzeko eta ezagutarazteko leku aproposa bihurtu da.

Herriko eta inguruko hainbat kontu bildu dituzte eraikinean: Baztango paisaia kulturala eta ondare arkitektonikoa, Don Jesus apez pilotazalearen argazkiak eta laxoari buruzko erakusketa, Iruritako Dantzari buruzkoak...

Uztailaren 5etik irailaren 17ra Dorrea zabalik egonen da eta bisita gidatuak eta bertako produktuen dastaketak eginen dituzte. Asteazkenetik orztiralera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara irekiko dute.



GURUTZE AIZPURI

Parajeen izenak auzolanean Oronozen

Parajeen izenak galtzen hasiak direla ohartu dira oronoztarrak, hortaz, adineko herritarrengana jo zuten lekuen izenak biltzeko. Manolo Inziarte herriko zurginak kartelak egin zituen bildutako izenekin, eta auzolanean paratu zituzten. Ondotik hamaiketako ederra egin zuten.

ZURE ZERBITZURA:

- Bonaketak-
Ukimenak-
Aholkariak
- Enbargoak-
Bilaketak
- Olita aldatzea-
Purifikatzaileak

**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK
PREZIORIK ONENEAN**

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez:
+34 608 791 971

+34 948 599 236 · www.josenea.es · centroauto@josenea.es

TAILERRAREN ORDUTEGIA: Astelehenetik ortziratera : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00. Gasolindegia ORDUTEGIA : 24ordu/24. Josenea Zone Auto (Dantxarrieko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarriena Nafarroa.

KULTURKARI
Dizaina grafikoak | Publikatzaileak
www.kulturkari.com

Panelak

Aluminioa, PVC edo metakrilatoa

Neurrira eginak, formarekin moztuak, formatu handiak, iraukorrak...



Olaizola, Agerre, Mitxelena, Ariztegi eta Mentaberri, udalbatza berria.

Argitxu Agerre da Xaretako lehen emazteki alkatea

Jean Michel Olaizola, Mikel Mitxelena, Juan Migel Ariztegi eta Evaristo Mentaberri izanen dira zinegotzi

MARIFA ETA KORO

Ekainaren 17an sortutako udalbatza berrian, Zugarramurdiko historian sartuko den datu polit bat bada: Argitxu Agerre da Zugarramurdiko lehen emazteki alkatea eta, horretaz gain, baita Xaretako eremua osatzen duten lau herrietan dagoen lehen emazte alkatea ere.

Orain arte emazteki batzuk (guttik) aritu izan dira lanean udalean, baina zinegotzi bezala Fani Bergara, Idoia Telletxea, Mari Angeles Ganboa eta Elena Apeztegia bakarrik. Aldi honetan, aldiz, Argitxu Agerrek



Argitxu Agerre makila hartzen.

hartu zuen alkatearen aginte-makila, Mikel Mitxelenaren eskutik. Animo aunitz bartz boluntario hauei, eta mila esker zuen denbora herriari eskaintzeagatik.

Zikiro-jatearen inguruko hausnarketa bilera egin du Akelarre elkarteak

MARIFA ETA KORO

Akelarre Elkarteak deiturik, Zikiro-jatearen inguruko hausnarketa-bilera egin zen ekainaren 16an.

Orokorrean ongi antolatua den aspaldiko ekitaldia da hau, baina halere, makilak egiteak duen lan handian laguntza

falta sumatzen dute antolatzaileek. Beraz, lan berezi eta bitxi horretarako lantalde bat sortzeko beharra ikusi dute.

Bertzalde, zikiro egunean lan egiten duten 40 urtetik goitikoentzat, errefetako sarri erdi prezioan ematea erabaki zuten.



UTZITAKOA

Talde mistoa bote luzean Suhuskunen

Ekainaren 17an Suhuskunen egin zen lau taldeen arteko bote luze txapelketa. Han aritu ziren herriko pilotariak ere, eta berezitasun batekin gainera: talde mistoa izan zela, bi neskek parte hartu baitzuten. Tailer bat emanen dute udan, eta bestetan herritarren arteko partida bat jokatu nahi dute.



UTZITAKOA

Udaberri besta Akelarrearen eskutik

Udaberria agurtzeko, ekainaren 10ean Udaberri besta antolatu zuen Akelarre Elkarteak. Zarauzko Ginger taldea (argazkian) eta Berako Harat taldeak aritu ziren musika jotzen eta giro ederra izan zen. Udazkenari ere gisa beretsuko agurra ematea da intentzioa.

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

BERNILL

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ENERGIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Kultur eta kirol egitarau oparoa uda honetan ere

Astelehenetan eta ortzegunetan merkatuak izanen dira plazan eta Pleka trinketean kontzertuak Usopopen eskutik

GANEX

Ohikoa denez, udan kultur eta kirol ekitaldi egitarau zabala izanen dute Saran. Uztaileko lehen hamabostaldikoak bakarrik aipatuz, uztailearen 5ean, asteazkenean, Larrun kanta kontzertua izanen dute elizan eta uztailearen 8an, larunbatean, 'Partir en livre' mediatekan. Uztailearen 10ean, astelehenean liburutegia eta eskulan tailerrak izanen dituzte plazako frontoian eta biharamunean, herri kirol eta pottoka ikusgarria leku berean. Lezeetan ere hiltzaldiak izanen dira.

Merkatuak astelehenetan eta ortzegunetan eta kontzertuak igandetan

Hauei eta ondotik etorriko diren ekitaldiei gehitzeko, aipatzekoa da astelehen goizeko eskulangileen merkatuak (09:00-13:00) eta ortzegun goizeko ekoizleen merkatuak (09:00-13:00). Gainera, Usopop elkarteak antolatutako, pleka trinketean *Fururietan* zikloko kontzertuak entzuteko aukera izanen da. Lehenengoa uztailearen 13an, ortzeguna, eskainiko dute Amorantek eta Rukula taldeak.

Sara Rugby Touch uztailearen 22an egingen dute errugbi zelaian

Sarako Rugby Touch uztailearen 22an egingen dute Animaineko errugbi zelaian, Sarako Izarrak antolatua. Izena uztailearen 10a baino lehen egin behar da 06 50 76 45 38 telefonoan edo Sarako Izarra rugby taldearen Instagram kontuan. Bortz jokalaririk bortz jokalariren

kontrako partidak izanen dira (gehienez hamaika jokalaririk talde bakoitzeko). Jokalaririk bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. Uztailearen 22an, 10:00etan egingen dute elkarretaratzea. 11:00etan hasiko da errugbi txapelketa eta ostatua ere izanen dute.

Zazpi herri Larrungo Mediateka Sarean buruilarren 4tik goiti

Larrungo Mediateka Sarea osatu dute Arbona, Azkaine, Ziburua, Getaria, Senpere, Donibane Lohizune eta Sarak. Buruilarren 4tik goiti karta bakarra eta doakoa izanen dute erabiltzaileek eta herri horietako edozein mediatekara joateko aukera izanen dute.



GANEX

Sarako eta Senpereko haurrak errugbian

Aitzin horretan Sarako eta Senpereko 5 urteko haurrek egin dute errugbi jokoarekin lehen harremana. Behar zen ikusi haur tiki horiek nola moldatzen ziren balonarekin. Bi herrietan aritu dira. Beharbada ondoko belaunaldiko basurdeen talderako lehen urratsa izan zen.



GANEX

Beti Gaztekoen bigarren elkarretaratzea

Beti Gazte elkarteak ereiarioaren 17an egin du urteko bere bigarren elkarretaratzea Les Trois Fontaines jatetxean. Denetara 55 kidek egun goxo bat pasatu dute, umore onean, euskal kantu eder batzuk emanez. Elkartearen buruzagiek eskerrak eman dizkiete denei.

VENTA PEIO
GEBAGO EMATEN DZU

BARDIN 31760 Bera
BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25' eta urtarrilaren 7' izan ezik

Jantxidendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

«Ongi pasatzen dudan heinean segi nahiko nuke bertsoan»

HAIRA AIZPURUA IBARGARAI BERTSOLARIA

Bertsotan eskolarteko seigarren txapela irabazi berri du Haira Aizpurua Ibargarai. Txapelketaz gaindi, aitarekin eta anaiarekin trebatzen da etxean eta gustura aritzen da, «giro goxoan»

A. LARRETxea

Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa eta Euskal Herriko Eskolartekoa irabazi ditu berriki Haira Aizpurua Ibargarai bertsolariak. 16 urte bertzerik ez dituen arren ibilbide oparoa osatzen ari da bertsoan, horren seinale Iparraldeko laugarrenez irabazi duela eta Euskal Herri mailakoa bigarren. Eskolarteko lehiaz gain plazaz plaza ere ari da eta hala segi nahiko luke hemendik aitzinera ere.

Pasa dira egun batzuk finala irabazi zenuenetik. Nola oroitzen duzu lurretako saioa?

Niri aski fite pasa zitzaidan saio eta momentu berezi bat bezala oroitzen dut, giro aldetik biziki giro ona eta goxoa izan zela, aski lasai sentitu nintzela, eta denek saio on bat egitea lortu genuela. **Gustura sentitu zinen oholztan?** Bai, egia erran bai. Pixka bat bitxia egin zitzaidan azkena kantatzea. Hori oroitzen dut, normalki ez dudalako inoiz kantatu azken, eta pixka bat bitxia egin zitzaidan hori hasieran, baina, gero, moldatu nintzen eta ongi sentitu nintzen.

Oro har, nolako saioa joan zela erranen zenuke?

Nik uste dut saio ona izan zela. Zortziko handian baino hobea, beharbada, zortziko ttipian. Handian egia da ez ginela sobera berotuak eta



Haira Aizpurua agurra kantatzen txapela irabazi berritan. XDZ

gaiak ere pixka bat konplikatua zirela, baina erranen nuke saio ona izan zela.

Bukaerako agurrean bertso udalduketako lagunak aipatu zituen. Zenbateko garrantzia du bertsoan komunitate baten parte sentitzeak?

Nire ustez da zerbait sentitu dudana urteak joan ahala. Egia da hasierako txapelketetan ez nuela hainbeste jende ezagutzen, ez nituelako horrelako harremanak eta diferentea zen. Irsten nintzen leku batera non jendea ez duzun sobera ezagutzen. Gero, gainera, haiekin kantatu behar duzu eta kantatzeaz aparte oholztan zauden momentuetan lagun talde bat edo komunitate bat duzunean, erra-

zago eta erosoago kantatzen duzu. Final horretan banituen lagunak bai oholtzan eta bai publikoan, eta laguntzen du aunitz.

Euskal Herrikoaren aitzinetik Iparraldeko eskolarteko txapelketa ere irabazi berri duzu laugarrenegoz. Gustura aritu zinen bertan?

Bai, egia erran bai. Aski lasai eta kontzentratua joan nintzen. Ontsa joan zen. Banituen lagunak hor ere eta baita anaia

«GEROZ ETA GEHIAGO LOTZEN ARI NAIZ BERTSOLARITZARI»

ere eta biziki gustura egon nintzen.

Anaia aipatu duzu. Berezia izan zen berarekin kantatzea?

Bai. Anaia izaki eta finala izaki, niri ilusio handia egin zidan, eta bai, berezia izan zen.

Iparraldeko eskolartekoa lau aldiz irabazi duzu, eta Euskal Herriko bitan. Zenbateko garrantzia dute horrelako sariketentzuz?

Final bakoitza desberdina izan da. Eskolartekoak gure lehen plazak dira, eta gero markatzen zaituzte pixka bat, baina nik aski ongi bizi ditut.

Plazaz plaza ere bazabiltza. Nolako izaten ari da plazetako ibilbidea?

Momentuz biziki gustura aritzen naiz. Ahal bezala baliatzen ditut ditudan plaza horiek eta harremanak egiten ditut saio horien bidez. Plazer hartzen dut.

Zein leku du bertsoaritzak gaur egun zure egunerokoan?

Ez da erraza beste aktibitateei, ikasketei eta bertsoari leku bat ematea. Baina gero eta leku gehiago du beharbada, eta leku hori hartzen ari da lotzen naizelako geroz eta gehiago. Biziki ongi pasatzen dut bai saioetan eta bai bertso eskoletan ere, eta leku ederra hartzen du.

Zeinekin aritzen zara bertso eskolan?

Bertso eskola etxean egiten dugu ene anaiarekin eta aitarekin. Nik biziki ongi pasatzen dut, giro goxoan. Eskolatik etortzean egiten dugu eta egunean egindakoak aipatzeko baliatzen dugu.

Uda iristearekin bat goiti egiten dute bertso saioek. Nolako uda aurreikusten duzu?

Ikusiko da. Ditudan aukera horiek baliatu nahiko nituzke, gogotsu nago, eta ongi pasatzen dudan heinean segitu nahiko nuke.

Zein bide egin nahiko zenuke bertsoan?

Momentuz ongi pasatzen dudanez segitu nahi dut, eta plazak etortzen badira ahalik eta ongien pasatu nahi dut.

Alkateak eta bortz zinegotzik hartu dute kargua oraingoz

Azkar taldeko Iñaki Ariztiak segituko du alkate eta PPko bi zinegotzietatik batek dimisioa eman du

ARANTXA ETA IRAIA

Azkar taldeko Iñaki Ariztia Urrizak ekainaren 17an berarratu zuen alkate kargua, eta horrenbertez, berak segituko du aginte makilarekin. Sei boto hartu zituen Ariztiak, bere taldeko bostena eta PPko Silvia Olaizolarena. Jose Carmelo Muñoz PPko bigarren zinegotziak dimisioa aurkeztu zuen, eta hortaz, zazpi hautetsietatik seik hasi dute agintaldia. Iñaki Ariztia alkatearekin batera, Azkar taldeko Cristobal Altzuietok, Jose Luis Gomezek, Pedro Lanauk eta Javier Diazek eta PPko Silvia Olaizolak hartu dute zinegotzi kargua. Alkateak TTIPI-TTAPari kontaktu dionez, «PPko bertze bat sartu eta legalizatu bitartean seiak ariko gara».



Fagoagategia inauguratu dute.

Beñardok beren *Ardo* diskoa aurkeztu zuten. Bertaratutakoek musikaz gozatzeko aukera izan zuten zikiro goxo baten dastatu bitartean.

Fagoagategia inauguratua

Lehenagotik atek irekiak bazituen ere, ekainaren 23an, San Juan bezperan, ofizialki inauguratu zuten Fagoagategia etxea. Esti Markezek bere disko berria aurkeztu zuen akustikoan Iker Laurobarekin batera, eta ondotik, Morau eta

Ezkontza herrian

Inaugurazioa ez da izan azken asteotako ospakizun bakarra herrian. Joan den ekainaren 17an, udaletxean ezkontza izan zen. Aitor Ollo eta Letizia Foraccia ezkondu baitziren. Zorionak bikote!

Gizon eta emakumeendako arropadenda berria ireki dute Dantxarinean

ARANTXA ETA IRAIA

Aspaldian Dantxarineko Benta Peioko lehen solairu erdia hertsia zegoen handik lehenagoko arropa dendak mugitu ondotik. Ekainaren 9an berriz ireki zituen atek gune honek: Lefties arropa denda berria ereki baitzen. Haur,

emazte zein gizonendako arropak izaki, aukera aunitzeko denda da hau.

Inditex markaren prezio baxuko arropa denda hau 160 kilometroko inguruan dagoen bakarra denez, aukera bikaina da hurbildu nahi duen guztiarentzat.



ARANTXA ETA IRAIA

Antzerki emanaldia ekainaren 16an...

Ekainaren 16a eta 17a kultura anitzeko egunak izan ziren herrian. Lehenik, ekainaren 16an, ortziralez, *Antz, la musa de Baztán* antzezlanaren zuten kultur etxean Harremana jubilotekak, Arkupeak elkarteak eta Urdazubiko Herriko Etxeak antolatutak.



ARANTXA ETA IRAIA

Zinema eta luntxa hilaren 17an

Ekainaren 17an, larunbatez, berriz, Ugarana elkartearen eta Herriko Etxearen eskutik, *Irati* filma ikusi ahal izan zuten kultur etxean. Gero, luntx goxo bat dastatzeko aukera ere izan zuten. Bi ekitaldietara jende andana hurbildu zen, kulturaz gozatzeraz.



Jondoni Petri bestak ekainaren 30etik uztailaren 4ra prest

Ortziraleko adinekoen bazkariarekin hasi eta astearteko komertsanteen egunarekin bukatuko dira

JL BESSONART

Jondoni Petriren omenez herriak antolatzen ditu uda sarrikeran besta xarmantak. Gazteen komiteak bere indar guztiak ezartzen ditu denon gustuko programaren antolatzeko. **Ekainaren 30ean**, ortziraletan, adinekoen bazkaria Aroberri ostatuan (12:00), Eskolen lasterketak kirol-zelaian (14:00), Zintzur bustitzea pilota plazan (20:00), Zikiroa Baga-Bigak animatua (21:30), etxeratzea taxiz urririk.

Uztailaren 1ean, larunbatean, Ball Trap ehiztarien Ttattolan (09:00), Gakoen emaitza komiteari (12:00), Beer Pong lehiaketa (14:30), Pilotari gazteen finalak pilota plazan (16:00), Futboleko finalak kirol zelaian (17:00), Oxtika Txaranga (20:00), Dupla taldearen kontzertua (23:00) eta

dantzaldia Katxi taldearekin (00:30).

Uztailaren 2an, igandean, Meza nagusia Batteria txaranga animatua (10:30), Aperitifa Herriko-etxeak eskainia (12:00), Herritarren bazkaria, paella (13:30), Ahate jokoa (18:00), Kantaldia Indigo taldearekin (19:00), Elektrokela txaranga (20:00), Dantzaldia Koloka taldearekin (23:00).

Uztailaren 3an, astelehenean, Komitearen desfilea Erdi Aroa lemapean (16:00), Dantza Piko, Patxi ta Konpaniak animatua (19:00), Ixtaklok txaranga (21:00), DJ Mathieu (23:00).

Uztailaren 4an, asteartean, Herriko ostalerek antolaturik, «Casetas» moduan, komertsanteen eguna, pilota plazan.

Besta alai eta zoriontsuak iragan daitezela.



JL BESSONART

Baratze partekatua

Karrikatik Utsaleko zubiaren izkinean herriko langileek hiru lur zati prestatuak zituzten, baratze partekatua muntatzeko. Ekainaren 6an, herriko arduradun, langile baita bolondresak ere, beren eskuz landaketa lanetan aritu ziren. Zernahi baratze landare mota aurki daitezke.

Frantziako Tourra herrigunetik pasatuko da uztailaren 3an

Frantziako Itzuliko txirrindulariek zeharkatuko dute herria uztailaren 3an. Azkaindik etorriko dira (rd918), Gendarmariaren saihetsetik herriaren zentroraino, hemen bidegurutzean ezker harturik Uztaritzeko bidean goiti joanen dira. Txirrindulari eta publi-

zitate karabanaren pasatzeko bide nagusi horiek osorik edo partzialki hetsiak izanen dira, 13:30etik 18:00etara. Orogen buru, Herriko eskola guztiak hetsiak izanen dira egun osoan, hala nola hurrek ere parte hartzen ahalko dute bizikletaren besta handi horretan.



JL BESSONART

Bestaberri ohitura gaurkotua

Aspaldiko ohitura berriz gaurkotua izan da, gazte talde baten ekimenez. Mezatik landa, prozesioak pilota plazaren bidea hartu du, han plantatu baitzen aldea. Gazte aunitz jantzi ederrekin bestituak ziren, hauekin musikari, dantzari, haurrak arrosa hostoak barreiatzen... Besta eta otoitza uztartuak.



ARTXIBOKOA

Scaramuccia antzerkia Larrekon

Urte oso bat elkarrekin lan eginik, sekulako giro alai eta pozgarri batean, 100 antzerkilari prest dira *Ekintzetara Pasa Gaitezen* ikuskizunaren plazaratzeko. Urririk eskainia da Larrekon, ekainaren 28tik uztailaren 2ra (20:30ean). Programa aurki daiteke *scaramucciami-juin2023* webgunean.



Aritz Juanenea eta Segurola kontent, Sagardoaren txapelketa irabazi ondotik. MAIALEN ANDRES

«Gauzak ongi ateratzen dira gozatzen hasten zaren momentuan»

ARITZ JUANENEA ANDIARENA SALDIASKO ERREMONTISTA

2013an debutatu zuen 30 urteko saldiastarrak erremontean profesionaletan eta hamar urte beranduago lortu du bere lehen txapela. Segurolarekin batera, Sagardoaren txapelketa irabazi du

AITOR AROTZENA SALDIAS

Lehendik lau finalelara ailegatua baina laurak galduak... azkenean arantza hori kentzea lortu duzu...

Bai, lau final banituen, binakakoa bitan eta joan den urtean Sagardoaren txapelketakoa eta Sanferminetakoa, baina txapela ezin lortu. Banuen bat behintzat irabazteko gogo. Finalera ailegatzea ongi dago, baina beti galtzea ere... Arantzaxo hori kendu dut bai.

Partida ikusgarria, harmailak bete-beteak, hirugarren set edo jokoaren beharra... Final handi baten osagai guzikiak izan zituen. Iaz ere jende asko bazen, baina aurtengoan sarrera guztiak salduak ziren, frontoiak kristoren itxura zuen. Tentsio

horrekin hasi zen partida, hasieran lau pilotariek ez genuen gure maila eman, baina urduritasunak baretu genituenean final ona eskaini genuen. Lehenbiziko jokoa nahiko bideratua zuten Urrizak eta Martirenak, baina zortzi tanto segidan egin eta lortu genuen buelta ematea. Hori izan zen klabea, bestela 2-0 galduko genuela uste dut. Bigarrena beraiek irabazi zuten eta hirugarrena kale edo bale izaten da, suerteak ere badu zerikusia, eta gure alde erori zen.

Ez da binakako txapelketa ofiziala, baina Sagardoaren txapelketa honek badu bere xarma berezia. Gero eta garrantzitsua da?

Inportanteena buruz burukoa da eta gero binakakoa, baina Sagardoaren txapelketa hirugarren lekuan dago. Tebistan partida guztiak ematen dituzte, enpresak ere inportantzia ematen dio barreneko egitura horretan eta erremontista guztiak irabazi nahi izaten dugu. Indarra hartzen ari da eta jendearentzat ere, buruz burukoa eta gero, oihartzun gehien duena da.

«HELDUAGOA NAIZ ORAIN ETA BESTE 'TXIP' BATEKIN ARI NAIZ JOKATZEN»

Gainera aurtengoa erdi lesiona-tua hasi zenuen... Ibilbide zaila izan du lehen txapel honek?

Niretzat hunkigarria izan da. Otsailaren 2an operatu ninduten meniskotik, apirilaren 24an sartu behar nintzen txapelketan eta astebete lehenago deitu nion nagusiari, ez nuela jokatu esateko, baina berak animatu ninduen eta azkenean, jardunaldiz jardunaldi belar hobekiago joan da, jokoa hartzen joan naiz eta oraindik belarreneko minez banago ere, txapela lortzeko balio izan du. **Txapelak badu eskaintza berezirik?**

Aitak nire debuta ikusteko aukera izan zuen bakarrik, 2013an hil zen, eta beretzat dudarik gabe. Gero, familia guziari, lagunei... hor daudelako beti eta bereziki, gehien maite dudana Aroari, Sunbillako iloba tikiari eskaintzen diot.

Aurrelari bezala hasi zinen eta orain atzelari... Zure tokia gibelako kuadroetan hartu duzu?

Iazko *Erremontari*-n hasi nintzen atzelari eta jokatu nituen lau txapelketatik hirutan finaleraino sartu nintzen. Orain, Sagardoarena eta Herriz Herri txapelketa irabazi berri ditut. Atzean maila ona ematen ari naiz, jokoa lasaiago da. Aurreko xaltxa hori ere gustatzen zait, baina ez nuen zestoa ongi manejatzen. Atzetik, denbora gehiago duzunez, hobekiago moldatzen naiz.

Zer ezaugarri ditu gaur egungo Juaneneak?

Erremontea utzita ere ibili nintzen bi urte eta erdi eta 2017an bueltatu nintzen. Aldaketarik handiena aurretik atzera pasatu naizela da eta mentalki, beste *txip* batekin nagoela erremontean, orain gozatzerako joaten naiz eta gauzak ongi ateratzen hasten dira gozatzen hasten zaren momentuan. Mentalki beste bat naiz, hori da aldaketarik nagusiena, helduagoa naiz, bizitza pertsonalean ere familiarekin eta nire inguruarekin egonkortasun bat lortu dut.

Elkarrizketa osoa: erran.eus



Leitzako Bidart eta Zubillaga, infantil mailako finalerdian. NPF

Herriarteko bi txapelak jantzi ditzake Leitzak

Uztailaren 1ean Labriten jokatu diren finaletan, herriarteko txikian Bera izanen du arerio eta nagusian Iruñea

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 53. Herriarteko pilota txapelketetako finalerdia jokatu zituzten ekainaren 17an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Leitzak herriarteko txikiko zein nagusiko finalerako txartela lortu zuen. Txikian Bera izanen du arerio eta nagusian Iruñea, uztailaren 1ean

Labriten. Herriarteko txikiko lehen finalerdian, Bera eta Donezteberen arteko lehia, benjaminetan, Berako Zubietak eta Goñik 18-14 irabazi zieten Doneztebeko Elizalde eta Leizari eta alebinetan, Etxegarai eta Igoak 18-7 Doneztebeko Zestau eta Apeztegiari. Infantil mailan lortu zuen

garaipen bakarra Doneztebek, Fagoaga eta Anzizarrek 18-3 irabazi baitzieten Lazkanotegi eta Altzugureni.

Barañain eta Leitzaren arteko finalerdian, benjaminetan, Leitzako Zabaletak eta Bengoetxeak 18-9 irabazi zieten Barañaingo Bengoetxea eta Lazkozi. Alebin mailan, aldiz, Barañaingo Arrietak eta Elizalde 18-7 irabazi zieten Leitzako Zabaleta eta Olaizolari. Infantil mailan, Leitzako Bidart eta Zubillagak 18-9 irabazi zieten Barañaingo Antimasberes eta Zugastiri.

Leitza eta Iruñea nagusian

Herriarteko nagusiko lehen finalerdian, Iruñeak Larraun hartu zuen mendean (2-1) eta bigarrenetan Leitzak irabazi zion Baztani, gaur egungo txapelaren. Kadete mailan Leitzako Sagastibeltza eta Telletxeak 22-4 irabazi zieten Baztango Prim eta Goienetxeri, baina jubenetan Baztango Sagardiak eta Apeztegiak 22-1 irabazi zieten Leitzako Arregi eta Martinezi. Honela, nagusien mailan erabaki zen finalista eta Leitzako Goikoetxeak eta Txoperenak 22-14 irabazi zieten Baztango Ariztegi eta Apeztegiari.

336.514 euro banatu ditu Miguel Indurain Fundazioak

TTIPI-TTAPA

Miguel Indurain Fundazioak 156 kirolariri eman dizkie aurretan bekak. Denera, 336.514 euro banatu ditu. **Programa olinpikoaren** baitan, Aresoko Adur Etxezarreta eskiatzaileak 9.000 euro hartu ditu.

Euskal pilota programan, Oian Canabal eta Joseba Aldabe igantziarrek 1.200na euro hartu dituzte eta Julen Retegi eratsundarrak 850 euro.

Herri Kirol programan, 350na euro jaso dituzte Beti Gazte sokatira taldeko Iñigo Altzugarai, Ainhoa Etxegarai, Aitziber Goienetxe, Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Unai Gurrutxaga, Amaia Leiza, Maddalen Lopez, Ander Mitxelena, Karmelo Mitxelena, Jose Angel Mitxelena, Beñat Ordoki, Julen Palenzuela, Karmele Pikabea, Pascual Taberna, Gerardo Telletxea, Oskar Telletxea, Ainhoa Ubiria, Maria Iantzi eta Beñardo Iantzik eta 250 euro Berako Nerea Sorondo aizkolariak.



UTZITAKOA

Beñat Apeztexea txapeldun Berriobeitin

Beñat Apeztexea goizuetarrak eta Gabirondok Berriobeitiko bigarren esku pilota txapelketa irabazi dute. Ekainaren 11n jokatu diren finalean 22-5 irabazi zieten Lizeaga II.a eta Benaolari. Hirugarren posturako lehia, Rekaldek eta Lazkozek 22-19 irabazi zieten Egiguren eta Arroitari.



UTZITAKOA

Uxuri Portu Espainiako txapeldun

Espainiako trial txapelketa jokatu zen ekainaren 10ean Caspen (Aragoi). Berriki Erregearen kopa eta Nafarroako txapelketa irabaziak dituen Uxuri Portuk, Espainiako txapelketa ere irabazi zuen, 9 eta 12 urte arteko nesketan. Xabier Valverde zazpigarren izan zen kadete mailan.

EKAINAK 29 - UZTAILAK 13

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ESTEFANIA DE PAZ

BERTIZ 'Argako erregina' erakusketa

Estefania de Paz artistaren erakusketa, Nafarroako Gobernuaren Kultur 2023 programaren barnean. Ikuskizunak eta tailerrak. Lorategi botanikoan eta erakusketa gelan, uztailaren 3tik abuztuaren 31ra. Informazio gehiago 26. orrian.

JARDUNALDIAK

LEITZA

Gorritzarango eguna

Egun osoko egitarauarekin. Gorritzaranen, uztailaren 2an. Xehetasunak 38. orrian.

BESTAK

ERRATZU

San Pedro bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

DONEZTEBE

San Pedro bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.

SENPERE

Jondoni Petri bestak

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra. Xehetasunak 53. orrian.

AZPILKUETA

San Fermin bestak

Uztailaren 5etik 8ra. Xehetasunak 45. orrian.

LESAKA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 10era. Xehetasunak 27. orrian.

MUSIKA

LESAKA

Lesakako Musika Bandaren kontzertua

Plaza Zaharrean, ekainaren 30ean, 12:30ean.

DONAMARIA

Ache pa ti taldearen kontzertua

Plazan, uztailaren 9an, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

Estefania de Paz artistaren 'Argako erregina' erakusketa

Lorategi botanikoan eta erakusketa gelan, uztailaren 3tik abuztuaren 31ra. Xehetasunak 26. orrian.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, uztailaren 1ean eta 8an, goizez.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, uztailaren 8an, 10:30etik 13:30era.

PROIEKZIOAK

BERA

Zinegoak film laburren emanaldia

Beralandetan, ekainaren 30ean, 20:00etan.

KIROLAK

LESAKA

Arkupe pilota elkartearen erakustaldia

Udal pilotalekuan, uztailaren 1ean, 16:00etan.

IKASTAROAK

BERA

Oinarrizko lehen sorospen ikastaroa

Barraskilo Gazte Taldeak antolatua. Kultur Etxean, ekainaren 30ean, 16:30ean eta 18:30ean.

Nire aukera

«Ahal dudan guztietan liburutegia dinamizatzen saiatzen naiz»

ELENA ARTETA BALLARIN LEITZAKO LIBURUZAINA



«Bere lana izugarri maite duen emakumea» da Elena Arteta liburuzaina. Irakurtzea du gustuko, «eta mendia eta igeriketa oso beharrezkoak zaizkit».

Irakurzaletasuna helburu Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasi zuen «duela urte asko. Orduan ez zegoen Bibliotekonomia eta Dokumentazio lizentziatura, eta liburutegiak ez ziren gaur egun diren leku dinamikoak». Hori dela eta, ikastaro asko egin ditu liburutegi publikoan lan egiteko, «bai nire kabuz eta baita Liburutegien Sarearen bidez ere».

2021eko azaroaren 2an hasi zen Leitzan liburuzain lanetan; «Nafarroako Gobernuak deitutako azken oposizioak gaudititu eta Leitza aukeratu nuen. Esperientzia ederra izaten ari da, oso gustura nabil».

Liburuzain gisa, «nire funtsezko lana irakurzaletasuna bultzatzea da. Baina ez da erraza; ezin gara jendearen zain geratu, herrian eta inguruan dauden interes eta behar guztietara hurbildu behar dugu liburutegia. Irakurtzea, liburutetan jasota geratzen den mundu izugarri hori guztia, altxor handia da, denon bizitza hobetzeko eta aberasteko balio dezakeena».

Liburutegi dinamikoa Irakurzaletasuna ez ezik, «ahal dudan guztietan liburutegia dinamizatzen saiatzen naiz. Adibidez, Hazien Liburutegiak proiektuarekin kontsumo eta bizi eredu jasangarriago eta ekologikoago baten aldeko apustua egin dugu, Kontsumo taldearekin eta berdintasun eta kultur teknikariek elkarlanean».

Honez gain, «giza balioetan oinarritutako tailerrak egiten ditugu Nafarroako Gobernuarekin, eta hurrengo irailean izanen da. Ipuin-kontaktak ere egiten ditugu, eta umeak oso gustura ibiltzen dira. Pena da aurrekonturik ez izatea maizago antolatzeko».

Astelehenetan, berriz, xake taldea biltzen da liburutegian; «talde irekia da, gero eta haur gehiago hurbiltzen ari dira eta oso giro ona dago. Rafa Galañena ari da irakasle, eta boluntario gehiago bilatzen ari gara».

Irakurle taldea

Hilabetean behin irakurle taldea liburutegian elkartzen da «liburu jakin baten inguruan solastatzeko. Izugarri polita da. Liburutegien Sareak eskaintzen dizkigu liburuak eta horrela, gure kontura irakurriko ez genituzkeen liburuak irakurtzera animatzen gara».

Taldean «bakoitzak bere iritzia ematen du. Sor daitezkeen ikuspuntu eta iritziak entzutea esperientzia aberasgarria da. Taldean dagoen errespetuzko giroa azpimarratu nahi dut, inork ez du inolr epaitzen esandakoarengatik, eta askatasun osoa dugu. Giro ezin hobea!».

Gainera, «beste irakurle talde bat sortu dugu Okillen aritzen diren lagunekin, Pablorren eta Pilartxo irakaslearen laguntzarekin. Ostegunero ipuinak eta istorioak kontatzeko elkartzen gara, eta gustura ibiltzen dira. Leitzara iritsi nintzenean ez nuen inolr ezagutzen, eta Okilleko taldekideek asko lagundu ninduten. Askok maite ditut!».

«AZKEN URTEOTAN LIBURUTEGIAREN IRUDIA ASKO

Gizartera egokituz

Azken urteotan liburutegi publikoaren irudia «asko aldatu dela» dio Artetak, «jada ez da ikasteko isiltasuna nagusi den tokia, edo liburuak eraman eta itzultzeko balio duen lekua. Orain parte hartze sozialerako topaguneak dira. Formula berriak aurkitu ditugu jendea irakurmena hurbiltzeko». Izan ere, «erritmo bizian aldatzen ari den gizartera egokitu behar dugu. Zerbitzu publikoa gara eta gaur egungo aniztasun sozial eta kulturala kontuan hartuta, ahalik eta zerbitzurik zabalena ematen saiatu behar dugu».

Hala ere, Leitzako liburutegiak badu zer hobetu; «koka-pena, adibidez. Orain dagoen lekua oso atsegina eta argitsua da, baina nabaritzen da herriatik aparte dagoela. Badago proiektu bat liburutegia lekuz aldatzeko, baina oraingoz luzerako da». Horrez gain, «ikasleak ez molestatzeko bereizitako gela bat behar dugu».

Herriz herri

Baina eraikinetik kanpo, liburutegi ibiltarian ere aritzen da Arteta; «Arkaitzek, lehenagoko liburuzainak, jarri zuen egitasmoa martxan. Hilean behin Goizuetara eta Arano-ra joaten naiz euskarazko irakurmena bultzatzeko asmoz, eta oso erantzun ona izan du».

Gainera, «Aresoko Lore irakaslea nirekin harremanetan jarri zen eskolan irakurzaletasuna sustatzeko asmoarekin, eta hilabetean bitan jarduerak antolatzea erabaki genuen: ipuinak, jolasak... giroa bikaina da eta oso gustura aritzen naiz».

Etokizunera begira, «proiektu hauekin jarraitzeko asmoa dut momentuz, eta ume eta gaztetxoentzako ipuin lehiaketak eta filosofia tailerrak ditut burutan. Ikusiko dugu...».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

Emakume bat errentan hartzeko etxe bila, irekia erosteko aukerarekin. Txakur baten jabea, Elizondon lan egiten duena. Baztanen, Malerrekan eta Bortzirietan behar luke. Nahiago herritik pixka bat aparte edo mendian dagoen etxea. ☎664 15 54 80.

BORTZIRIAK. Pertsona bakarra urte gutzirako pisua bila. ☎639 19 81 77.

BERA EDO XARETA-BAZTAN inguruan 40 urteko gizon bat errentan hartzeko edo konpartitzeko apartamentu bila. Pertsona garbia eta arduratsua. ☎630 70 66 95.

ERRENTAN EMATEKO

BARAÑAIN. Pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldea-egongela-jangela eta bainugela. Unibertsitateko ikasleentzat, ospitaleetako langileentzat, NUK-koentzat edo Landabengoentzat toki onean. Berritua eta altzariz hornitua. Estreinatua gabea. Bista onak eta argitsuak. ☎639 11 80 61.



DONOSTIA. Terraza ederra duen pisu txikia Gros auzoan alokatzeko. Hondartzatik gertu eta hornituta (sukaldeko tresneria, izarak eta eskuoihalak...). Oporrak pasatzeko aproposa. ☎657 73 79 90.

SALGAI

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua), eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

BERA. Kanttonberri karrikan 81m2ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

EROSI

SUNBILLA, MALERREKA EDO BERTIZARANA INGURUAN baserria erosi nahi dute. ☎628 03 25 58.

LANAK

ESKAINITZAK

ELIZONDO. Janari denda eta bisita gida turistikoen negozioia eskualda-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

tzeko. 50.000 euro negoziagarri. ☎628 01 98 93.

ELIZONDO. Udan janari denda eta bisita gidatuen enpresan aritzeko langilea behar dute. ☎628 01 98 93.

Larhango Maritxen bentan langilea behar dute uztailean eta abuztuan lan egiteko. ☎674 79 58 63.

LESAKA. Lidera hortz klinikan laguntzaile bila ari dira. Bidali curriculum: infolidera@hortzklina.es.

BERA. Urbicain gasolindegian lanaldi osoan aritzeko langilea behar dute uztailearen 15etik azaroaren 15era. ☎629 08 35 67.

DANTXARINEA. Mikelenborda jabetxean langile bat behar dute 10:00etatik 17:00etara aritzeko. Urte osoko lana. ☎690 38 81 34.

LESAKA. Iturbena kafetegian urte gutzirako lanaldi osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Esperientzia

kontuan hartuko dute. Ordutegi finkoa eta aste osoan 2-3 egun libre. Interesatuak bertatik pasatu edo telefonoz deitu. ☎620 70 09 64.

ESKARIAK

Erizaintza ikasketak egiten ari den 20 urteko neska beratarra, uztailean eta abuztuan, astegunez, lan egiteko prest. ☎603 65 54 76.

Eskualdean lan egiteko prest dagoen mutila. Arduratsua eta langilea. Esperientzia lan anitzetan: mantentze lanetan, igeltsero... ☎634 29 47 41.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Collie arrazako txakurkumeak oparitzeko. Hori bai, maiteko eta ongi zainduko dituenari bakarrik. ☎636 02 23 11.



Katakume jostari eta harrapakariak opari. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SALGAI

LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo prestatuta. Informazio gehiago Whatsappez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

DENETARIK


SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Pigini markako super king doble casotto akordeoi kromatikoa salgai. 4 ahots eskuinean eta 5 ezkerrean. ☎722 81 97 66.



Tximeneta salgai, Lacunza markakoa. Gillotina erako atea. ☎687 95 03 48.



Forjazko oheburu antikuaria salgai. Egoera ezin hobean. Ohatze haundientzat egokia. Neurriak: 180 x 150cm. Prezioa: 390 euro. ☎629 65 65 42.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,19 €
- 2.koa 5,07 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42 €
- 1.koa 5,28 €
- 2.koa 5,17 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80 €
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 90 €

Zerri gizona 2,025 €

Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua ekainaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK



RENAULT MEGANE IV LIFE dci 95 CV
2019 urtekoa - 21.400 km



RENAULT CAPTUR ZEN dci 90 CV
2018 urtekoa - 26.000 km


www.taileressantesteban.com
DOMEZTEBE - T. 948 450 282
info@taileressantesteban.com



744 484 361

ttipi-ttapa

URTEBETETZEAK




Beñat Terreros Alzugarai lesakarrak lau urte bete ditu ekainaren 11n. Zorionak eta muxuak ataxi Joseren partez.



Xabier Ugalde Fagoagak lau urte beteko ditu ekainaren 29an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Arantzako eta Azpeitiko familien partez.




Erdi Igantzikoa eta erdi Sunbillakoa den **Iraitz Arrieta Urtzegik** 3 urte beteko ditu uztailaren 3an. Zorionak eta mila muxu erraldoi attatto, amatto eta Anartzen partetik.



Uxue Bikondo Arretxea eta **Julen Sarratea Arretxeari**: Zorionak bikote!!! Ekainaren 29an 16 eta 9 urte beteko dituzuelako. Arras ongi pasatu eguna eta zuen meriendaren zain egonen gara. Muxu erraldoia familia guztiaren partetik, eta bereziki Aritz, Oinatz, Aroa eta Adeiren partetik.



Ekainaren 21ean 3 urte bete ditu Arantzako **Xuban Ordoki Hualde** etxeko mutiko ttikiak. Aunitz urtez atta, ama eta batez ere zure arreba Kattalinen partez. Muxu potoloak!!



Aunitz urtez **Luken** eta **Enara**!!! 3 eta urte bat beteko dituzue. Muxu potolo-potolo bana Zubietako lehengusu eta osaba-izebaren partez!

EZKONTZAK

- **Iñaki Perugorria** eta **Darlyne Faucon**, ekainaren 9an Saran.
- **Oihane Zugarramurdi Zubieta** eta **Julen Oteiza Almandoz**, Goizuetakoa eta Arantzakoa, ekainaren 17an.

SORTZEAK

- **Maika Etxegarai**, Sarakoa, maiatzaren 30ean.
- **Maore Etxegarai**, Sarakoa, maiatzaren 30ean.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

WEB orriak



Landetxeak Komertzioak Gremioak...



Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua
Kontaktu formularioa
Lokalizazio-mapa
Testu eta argazki galeria
Hizkuntzak aukeran





Zure web gunea DOAN!

KIT DIGITALA

2.000 € arteko dirulaguntza

Info kulturkari.com/kit-digitala



HILBERRIAK

- **Josefina Berhau**, Sarakoa, ekainaren 1ean, 85 urte zituela.
- **Gregorio Elizalde**, Sarakoa, ekainaren 3an, 91 urte zituela.
- **Kiko Satrustegi Zugarramurdi**, Elizondokoa, ekainaren 6an, 66 urte zituela.
- **M^a Carmen Muñoz Granado**, Berakoa, ekainaren 12an, 65 urte zituela.
- **Iñigo Arizeta Lopetegi**, Berakoa, ekainaren 12an, 52 urte zituela.
- **Eulogio Jaurena Ustariz**, Arizkungoa, ekainaren 17an, 98 urte zituela.
- **Avelina Iantzi Berrueta**, Etxalarkoa, ekainaren 18an, 62 urte zituela.
- **Isabel Inda Arregi**, Sunbillakoa, ekainaren 18an, 103 urte zituela.
- **Manuel Aldaia Etxeberria**, Beintza-Labaiengoa, ekainaren 18an, 93 urte zituela.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



IZARRA
HEREN, ZURE ONDORRI
ARTEA ETXERAKO

Gure harra,
gure jendea,
gure sustraiak








TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**
Herentzia Zerbitzua

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50

365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pensioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36

www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

KONTATU KONTUAK



PATXI LARRETKEA

Transpirenaica Social Solidaria ekimenari harrera Beran.

Gizarte bazterkeria arriskuan dauden gazteak gizarteratzeko proiektua da Transpirenaica Social Solidaria eta hirugarren urtez harrera egin diete Beran. Ekainaren 17an egin zuten geldialdia Beran, eta besteak beste, Berako lau ikastetxeek Leire Urbeltz artistarekin batera osatutako elkarbizitzaren aldeko muraletan bildu ziren.



BAZTAN-BIDASOKO PENSIODUNAK

Pentsiodunen elkarretaratzea. Hilabetero bezala, euren aldarriak karrikara ateraz, ekaineko agerraldia Lesakako plazan egin zuten Baztan-Bidasoko pentsiodunen mugimenduko kideek. Uztailean eta abuztuan atsedendaldia hartuko dute eta ez dute elkarretaratzerik egingen, baina ikasturte berriari begira indarrak hartuta itzuliko direla adierazi dute, eta «berriz ere motxila kargatua» izanen dutela, «erronkek hor segitzen baitute».



BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Lehen sorospenen ikastaroa. Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, oinarriko lehen sorospenen ikastaroa egin zuten ekainaren 19an Beran eta Lesakan Elkarrizan elkarteko boluntarioak. Plaza guztiak bete ziren eta jendeak kanpoan gelditu behar izan zuen. Mankomunitatetik adierazi dutenez, «parte hartzaileak hagitz gustura gelditu ziren».



ALICIA DEL CASTILLO

Mugikortasun jasangarriaren aldeko bizikleta besta Lesakan. Lesaka BIZI-FEST topaketaren barrenean, bizikletaren erabilerari lotutako hainbat jarduera egin zituzten ekainaren 10ean Lesakan, eta,aldi berean, Bizi-Connect proiektuaren azken ekitaldia izan zen. Gisa honetara, bertzeak bertze, bizikletaren bidezko mugikortasun jasangarria sustatu nahi izan zuten.



UTZITAKOIA

Harrera herri bilakatzeko aldarria. Greziako kostaldean gertatutako tragedia salatu, elkartasuna adierazi eta Europa zein Euskal Herria harrera herri bilakatzeko aldarrikatuz, 160 leitzar inguru bildu ziren ekainaren 6an hainbat eragilek deituta egindako elkarretaratze isilean. Zehazki, Elikadura Bankua, EHME, Jaiki abesbatza, Lañaidek, ALKE, Aurrera Elkarte, LHL, Jubilatua Elkarte, Gazte Asanblada, LeitzEKO, Habelarte, Tximutxe Euskara Taldea, AteKaberts Bertso Eskola, Ernai, Sastrakak, Leitzako Sare Herritarra, AteKabeltz Herrigunea, LAB Torraspapel, ELA Torraspapel, Torrea, Jardun, EH Bildu Leitza, EA Leitza, eta Sortu Leitza erakunde eta eragileek egin zuten elkarretaratzerako deia.

ALDEA DAGO!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 14 dira guztira.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienari 8 emanaz.



Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

832 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Miguel Jose Alzuri Almandoz | ARANTZA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Eugenio Mihura | ZUGARRAMURDI
Ez kexa - Kamiseta bat
M^a Josefa Etxenike Etxeberria | ELIZONDO
BKZ Abentura - Sarrera bat
Joanes Arozarena Gomez | LEITZA
WOW Park - Sarrera bat
Marijo Lasarte Sagastibeltza | DONOSTIA
Mendukilo - Bi sarrera
Begoña Quintano Fernandez | ATARRABIA
Martiko - Lote bat
Oskar Goñi Petrirena | BERA
Anikote - Sarrera bikoitza igerilekurako
Claudio Retegi Beraza | ERATSUN
Ikaslekar - Hiru liburur
Idoia Etxeberria Makirriain | ARANTZA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com




Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
Eliza karrika, 18 - Donostia



Lote bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipe Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



airaka
www.airakamusic.com



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!